



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VI. legegintzaldia

Iruña, 2006ko uztailaren 20a

70. ZK.

A U R K I B I D E A

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, Europar Batasuneko gaiei buruzko prestakuntzarako laguntzak emateko deialdia onesten duen 78/2006 Foru Aginduan administrazioak jadanik badaukan dokumentazioa eskatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- Galdera, Nafarroako Foru Komunitateko zenbait obra publikotan jarritako eskulturei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- Galdera, jakiteko Frantzia eta Iruña arteko bidearen diseinuan txirrindulariak aintzat hartu ote diren. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- Galdera, jakiteko oinarritzko osasun laguntzako farmazialarien lanpostuei buruz 2001ean onetsi zen mozioan premiatutakoa bete ote den. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- Galdera, Osasun Departamentuak San Francisco Javier zentro psikogeriatrikoarentzat etorkizunari begira dituen planei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- Galdera, hezur-dentsitometriari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- Galdera, Trabajos Catastrales, S.A. enpresa publikoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- Galdera, Gobernuaren ordezkariak New Yorkera eginen duen bidaiari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- Galdera, Frantzisko Jatsukoaren jaiotzaren V. mendeurrenaren kariatara egindako inbertsioei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- Galdera, NA-411 errepidea –A15-Ostiz izenekoa– hobetzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- Galdera, jakiteko Kultura Departamentuak Tuteran agertu diren aztarna arkeologikoak kontserbatzeko asmorik ote duen. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- Galdera, “Erresuma baten aroa” erakusketan ikusgai egon diren zenbait pieza Lizarran jarriko bide den erakusketa iraunkor batera eramateari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- Galdera, Frantzisko Jatsu eta Azpilkuetaren jaiotzaren V. mendeurrena ospatzeko ekitaldien barruan Kawaguchiko abesbatzak eman beharreko kontzertua egiteko tokia aldatzeko arrazoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).

- Galdera, Nafarroako Gobernuaren enkarguz Víctor Manuel Arbeloaren liburu bat argitaratzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuaren enplegurako laguntzei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).
- Galdera, hautatutako ikastetxean matrikulatzerik izan ez duten ikasleei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
- Galdera, Nafarroan azken urteotan haur hezkuntzan izan diren aurrematrikulazio eta matrikulazio datuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (25. or.).
- Galdera, Castejónko ziklo konbinatuko zentral termikoaren ingurumen eraginaren adierazpenari jarraikiz egin beharreko ingurumen zaintzako programari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (32. or.).
- Galdera, Iruñeko autobus geltokiaren gaineko hitzarmenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (36. or.).
- Galdera, mahastien eskubideen prezioari eta mahatsaren ekoizpenaren kontrolari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (37. or.).
- Galdera, Iruñeko zeruan aireko armadaren hegazkin batek egindako erakustaldiari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (38. or.).

F saila:
GALDERAK

Galdera, Europar Batasuneko gaiei buruzko prestakuntzarako laguntzak emateko deialdia onesten duen 78/2006 Foru Aginduan administrazioak jadanik badaukan dokumentazioa eskatzeari buruzkoa.**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak Europar Batasuneko gaiei buruzko prestakuntzarako laguntzak emateko deialdia onesten duen 78/2006 Foru Aginduan administrazioak jadanik badaukan dokumentazioa eskatzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu dut. Galdera 2006ko maiatzaren 2ko 40. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 29an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko Miguel José Izu Belloso jaunak galdera egin du Europar Batasuneko gaiei buruzko prestakuntzarako laguntzak emateko deialdia onesten duen 78/2006 Foru Aginduan administrazioak jadanik badaukan dokumentazioa eskatzeari buruz. Hona Ekonomia eta Ogasun kontseilariaren erantzuna:

1.- Zergatik aipatu foru aginduan interesa duten herritarrei eskatzen zaie foru komunitateko administrazioak jadanik badaukan dokumentazioa, azaroaren 26ko 30/1992 legearen 35. f) artikulua ezartzen duenaren urraketa agerikoa eginez?

Europar Batasuneko gaiei buruzko prestakuntzarako laguntzak emateko deialdia onesten duen Ekonomia eta Ogasun kontseilariaren 78/2006 Foru Aginduko 8. oinarria ez dator bat Dirulaguntzei buruzko azaroaren 5eko 11/2005 Foru Legearen 9. e) artikuluan ezarritakoarekin; huts hori zuzentzeko, maiatzaren 2ko 120/2006 Foru Agindua eman da; agindu horren bidez, aipatu deialdiaren 8. oinarriaren laugarren lerrokada berridatzi da. Testu berri hori erantzun honekin batera eran-

tsi dugu. Egindako akatsa onartu behar dugu eta parlamentari honi egin duen azterketa azkarra eskertu behar diogu; izan ere, aipatu deialdia ostiral batean argitaratu zen eta galdera hau hurrengo egun baliodunean egin zuen.

2.- Ba al dago horri buruzko irizpide bateraturik foru erkidegoko administrazioan, praktikan departamentu batzuetatik besteetara eskakizunak hainbeste alda ez daitezen?

Lehenik eta behin honakoa aipatu behar dugu: Herri administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearen Legean aurreikusitako oinarriko lege-betebeharra jasotzeaz gain, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legearen 9.4. artikuluan aurreikusten da, betebehar hori era partikularrean, sektore guztietan ezartzea; adibidez horixe egin da Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 13.8. artikuluan, betebehar horrek gai hori bereziki ukitzen duelako.

Halaber, aipatzekoa da koordinazio batzordeak lege-betebehar hori betetzeko beharrezko enfasi berezia jartzeko premia transmititu duela, herritarrek Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioarekin dituzten harremanetan bere eskubideak ahalik eta asebeteko izan ditzaten. Idazkari nagusi tekniko guztiek deialdi guztiak berrikusteko eta bakoitzari dagokion arloan aipatu lege-betebehar hori betetzen den ziurtatzeko konpromisoa hartu dute. Honekin lotuta, aipatu batzordea departamentu eta erakunde autonomo guztien jarduketari irizpideak koordinatzeko eta bateratzeko neurriak lantzen ari da. Horrela, hainbat arlotan lege-betebehar hori betetzen dela ziurtatzeko, zehazki dirulaguntzen arloan, dirulaguntzak kudeatzeko prozesua errazteko eta diseinatzeko talde korporatibo bat sortu da, administrazio langile oso kualifikatuek osatua. Talde horrek egindako

lanek dirulaguntzak eskatzeko formularioa errazte-
ra jo dute, eta, bereziki, beharrezkoa ez den doku-
mentazioa kendu nahi da; hori lortzeko, herritarren
eta administrazioaren arteko harremanak erraztu-
ko dituen formulario estandar bat diseinatu da;
horrekin herritarren eskubideak bermatuko dira eta
administrazioaren jarduketa arlo horretan bateratu-
ko da. Halaber, izapideak arintzeko asmoz, datuak
ziurtatzeko prozesu hori automatizatze hainbat
neurri prestatzen ari dira, herritarren eta hori apli-
katuko duten organoen onerako.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parla-
mentuko Erregelamenduaren 190. artikulua bete-
tzeko.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 22an

Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: Francisco
Iribarren Fentanes

Oharra: Aipaturiko foru agindua foru parlamen-
tarien eskura dago Legebiltzarreko Zerbitzu Oro-
korretako bulego nagusietan).

Galdera, Nafarroako Foru Komunitateko zenbait obra publikotan jarrita- ko eskulturei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artiku-
luan ezarritakoa betez, foru parlamentari Maiorga
Ramirez Erro jaunak Nafarroako Foru Komunitate-
ko zenbait obra publikotan jarritako eskulturei
buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Dipu-
tazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari
Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera
2006ko maiatzaren 15eko 47. Nafarroako Parla-
mentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko ekainaren 1ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeari atxiki-
tako foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jau-
nak galdera egin du Nafarroako Foru Komunitate-
an eginiko zenbait obra publikotan eskulturak
jartzeari buruz. Hona hemen Herri Lan, Garraio
eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

Galdera:

Nafarroako Foru Komunitatean eginiko zenbait
obra publikotan, eskulturak jarri dira. Horiei buruz-
ko honako informazioa eskatzen dugu:

1.- Zein departamentuk adjudikatu ditu lan hori-
ek?

2.- Adjudikatzeko zein sistema hautatu da?
Adjudikazio bakoitzaren baldintzen orriak eta hori-
etako bakoitzaren justifikazioa. Izangaiak banan-
banan zehaztea nahi digu, bat baino gehiago
zegoen kasuetan.

3.- Zein izan da lan horietako bakoitzaren kos-
tua?

4.- Zein izan dira adjudikazio-hartzaileak? Zer-
gatiak?

Erantzuna:

1. Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departa-
mentuak adjudikatu ditu lan horiek.

2. Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departa-
mentuak, 5.400.000 euro baino gehiagoko aurre-
kontua duten lanetan, esleitzeko irizpideen artean
"ekarpen estetiko osagarria" izeneko irizpidea era-
biltzen du; irizpide horrek ehun puntutik gehienez
puntu bat izan dezake. Puntuazio hori lizitatzailerak
apaingarriak jartzeko aurrekontuaren % 0,5 bere
kontura ekartzeko hartu duen konpromisoaren
arabera ematen da; diru hori departamentuak
berak kudeatuko du.

Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departa-
mentuko zuzendari nagusiak, Vianako Printzea
Erakundeko-Kulturako zuzendari nagusiak, Nafa-
rroako Museoko zuzendariak eta Bide eta Erai-
kuntza Zerbitzuko zuzendariak kasu bakoitza
ebazten duen batzorde bat osatzen dute.

Hori dela eta, obraren kokalekuaren arabera
eta Kultura Departamentuak hala proposatuta,
artisten zerrenda bat (normalean hiru) egiten da;
artista horiek gonbidatzeari, beren estiloa edo
curriculuma dela-eta, interesgarria iritzi behar
zaio.

Hona hemen apaingarrien zerrenda eta gonbi-
datutako artistak:

Altsasu-Etxegarate	José Ramón Anda Elena Asins Dora Salazar
Tuterako saihesbidea	José A. Eslava Juan Diego Miguel Rafael Bartolozzi
Larrakaizko tunela	Karlos Ciriza Dora Salazar Xavier Santxotena
Ekialdeko ingurabidea	José A. Eslava
Eneko Aritzako biribilgunea	Juan Diego Miguel
Talluntzeko biribilgunea	Dora Salazar

Gonbidapen bakarra eman den kasuetan, beste gonbidapen batera aurkeztu eta esleipendun atera ez diren artista eta motiboei dagokie; izan ere, batzordeak artista horien proposamenak etorkizunean kontuan izateak merezi zuela uste zuen.

Donejakue bideko A-12 autobidearen kasua desberdina da. Autobide horretan Carlos Ciriza eskultorearen hiru lan paratuko dira; lan horiek emakida duen enpresak eskaini zituen, obraren zuzendaritzak onartu zituen eta 2006ko martxoaren 29an sinatutako hitzarmenean islaturik zeuden; hitzarmen hori Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak, Nafarroako Ondare Historikoa zaintzeko Fundazioak eta enpresa emakidadunak berak sinatu zuten.

3.- Hauxe da lan horietako bakoitzaren kostua:

Altsasu-Etxegarate	103.846,00 euro
Tuterako saihesbidea	59.181,00 euro
Larrakaizko tunela.	35.832,00 euro
Ekialdeko ingurabidea	43.548,00 euro
Eneko Aritzako biribilgunea	58.900,00 euro
Talluntzeko biribilgunea	36.060,00 euro

4. Obra horien esleipendunak hauexek izan dira:

Altsasu-Etxegarate	José Ramón Anda
Tuterako saihesbidea	Juan Diego Miguel
Larrakaizko tunela.	Karlos Ciriza
Ekialdeko ingurabidea	José A. Eslava
Eneko Aritzako biribilgunea	Juan Diego Miguel
Talluntzeko biribilgunea	Dora Salazar

Esleipen horien arrazoiak 2. puntuan garatutako prozeduran bildutakoak dira.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 24an

Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria: Álvaro Miranda Simavilla

Galdera, jakiteko Frantzia eta Iruña arteko bidearen diseinuan txirrindulariak aintzat hartu ote diren.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Miguel José Izu Beloso jaunak Frantzia eta Iruña arteko bidearen diseinuan txirrindulariak aintzat hartu ote diren jakiteko egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko maiatzaren 15eko 47. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko ekainaren 1ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Miguel José Izu Beloso jaunak galdera egin du eraikitzen ari den Pirinioen A-21 autobian eta Nafarroa eta Frantzia lotuko duen errepidean ziklistak ibiltzeari buruz. Hona Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna.

Galdera:

1. Iruña eta Frantzia arteko bide berriaren diseinuan, kontuan hartuko al da bizikletak badaudela, eremu horretara irits daitezten ez galarazteko? Neurriren bat hartuko al da Luzaide eta Iruña artean eta inguruko lekuetan bizikletan segurtasunez ibiltzeak bideragarria izaten jarrai dezan? Neurriren bat hartu behar al da Iruñetik ibilbide horretara iritsi ahal izateko nahitaez autobien batetik joan behar izan gabe?

2. Aurreikuspenen bat ba al dago N-240 errepiderako sarbideren bat egoteko bizikletentzat, hura A-21 autobioak zerbitzu-bide bihurtzen denerako, egungo edukiera handiko bideetatik kanpo?

3. Oro har, Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak neurriren bat edo aurreikuspenen bat ba ote du komunikabideetan bizikletak ere badaudela aintzat hartzeko bide horiek eraiki edo erreformatzeko proiektuei ekiteko garaian?

Erantzuna:

1. Nafarroako Foru Komunitateko Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentua eta Frantziako Pirinio Atlantikoetako Departamendua, elkarlanean, Iruña eta Pirinioa Atlantikoak lotzeko bidearen diseinua garatzen ari dira; diseinu horretan bizikletak eta nekazaritzako ibilgailuak kontuan hartu dira inguruko lekuetara segurtasunez sartzeko aukera izan dezaten.

2. Bizikletak Iruñetik N-240 errepidera sar daitezke gaur egungo edukiera handiko bideetatik igaro gabe. Ibilbide posibleetako bat honakoa da: Iruñea-Ezkirotz-Noain-Imarkoain-Dorre-Elortzibar.

3. Errepideak diseinatzean, bizikletak eta nekazaritzako ibilgailuak beti kontuan izaten dira; eraiki behar den errepideari dagozkion ezaugarriak eta trafikoaren intentsitatea aztertuta, bizikletek eta nekazaritzako ibilgailuek duten garrantzi erlatiboa baloratzen da. Autobia eta autobideetan ibiltzeari dagokionez, Zirkulazioko Erregelamendu Orokorreko 38. artikuluan ezarritakoa gogorarazi behar dugu: "1. Autobide eta autobietan debekatuta dago animaliek tiratutako ibilgailuetan, bizikletetan, ziklomotoretan eta mugikortasun urriko pertsonentzako ibilgailuetan ibiltzea (18.1. artikulua).

Aurreko lerrokadan xedatutakoa deusetan ukatu gabe, 14 urtetik gorako bizikletariak autobietako bazterbideetatik ibili ahal izango dira; betiere, bide-segurtasuneko arrazoiak direla-eta, dagozkion seinaleen bidez debekaturik ez badago. Debe-ku horrekin batera, ibilbide alternatiboaren berri ematen duen argibide-taula bat jarriko da.

Hemen ezarritakoaren arabera, segurtasun arrazoiak direla-eta bizikletari sartzeko debekatu zaien autobide eta autobien sarreretan, ibilbide alternatiboa proiektatzen eta seinaleztatzen da.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 24an

Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria: Álvaro Miranda Simavilla

Galdera, jakiteko oinarrizko osasun laguntzako farmazialarien lanpostuei buruz 2001ean onetsi zen mozioan premiatutakoa bete ote den.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betetz, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak oinarrizko osasun laguntzako farmazialarien lanpostuei buruz 2001ean onetsi zen mozioan premiatutakoa bete ote den jakiteko egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko maiatzaren 15eko 47. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko ekainaren 6an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak galdera egin du oinarrizko osasun laguntzako farmazialarien lanpostuak plantilla organikoan sartzeari buruz. Hona Osasun kontseilariaren erantzuna:

2004an, Oinarrizko Osasun Laguntzako Zuzendaritzako Farmazia Prestazioen Zerbitzuan hiru farmazialari sartu ziren.

2005eko lan eskaintza publikoaren ondorioz –gaur egun ebatzen ari dena– Oinarrizko Osasun Laguntzako Zuzendaritzako aipatu zerbitzuan beste farmazialari bat sartuko da.

2006an, Oinarrizko Osasun Laguntzarako beste bi farmazialari kontratatzea aurreikusten da.

Oinarrizko Osasun Laguntzako farmazialari guztiak Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Oinarrizko Osasun Laguntzako Zuzendaritzako Farmazia Prestazioen Zerbitzuari atxikita daude.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko ekainaren 1ean

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcely

Galdera, Osasun Departamentuak San Francisco Javier zentro psikogeriatrikoarentzat etorkizunari begira dituen planei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betetz, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak Osasun Departamentuak San Francisco Javier zentro psikogeriatrikoarentzat etorkizunari begira dituen planei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko maiatzaren 15eko 47. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko ekainaren 6an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak galdera egin du Osasun Depar-

tamentuak San Francisco Javier zentro psikogeriatrikoarentzat etorkizunari begira dituen planei buruz. Hona Osasun kontseilariaren erantzuna:

Nafarroako Gobernuak Osasun Departamentuak nafarren osasun arloko beharrei erantzuna ematen die, besteak beste adimen osasuneko beharrei; horretarako, lehen ere jakinarazi dizugunez, ondoko jarduketak gauzatzen ari dira:

– San Francisco Javier zentro psikogeriatrikoko txaleta esaten dioten eraikinean kokatuko den unitate babestuaren ekipamendua jartzen ari da.

– Errehabilitazio psikosozialeko 215 toki eskaini dira, Iruñean, Tuteran, Lizarran eta Elizondon. Zentro horietan, besteak beste, buruko nahaste larria duten pertsonentzako lanaren bidezko terapia zerbitzuak eskaintzen dira.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko ekainaren 1ean

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcely

Galdera, hezur-dentsitometriari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak hezur-dentsitometriari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko maiatzaren 15eko 47. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko ekainaren 6an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak galdera egin du hezur-dentsitometriaren inguruko hainbat auziri buruz. Hona Osasun kontseilariaren erantzuna:

Hezur-dentsitometria azken 5 urteetan igoera arina izan duen miaketa mota bat da, eta gaur egun Nafarroako Klinika Unibertsitarioarekin itunduta dago.

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak, profesionalek hala eskatuta, gaixoak miaketa hori egiteko Nafarroako Klinika Unibertsitariora bidaltzen ditu, eta bakarrik klinika horretara; izan ere, miaketa hori egiteko itun bat dago sinatuta klinika horrekin.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko ekainaren 1ean

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcely

Galdera, Trabajos Catastrales, S.A. enpresa publikoari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Jesús Pardo Gurpegui jaunak Trabajos Catastrales, S.A. enpresa publikoari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko maiatzaren 15eko 47. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko ekainaren 9an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Jesús Pardo Gurpegui jaunak galdera egin du Trabajos Catastrales, S.A. enpresa publikoari buruz. Enpresak bidalitako informazioaren arabera, hona Ekonomia eta Ogasun kontseilariaren erantzuna:

1.- Zein enpresa edo entitatetan hartzen du parte Trabajos Catastrales S.A. enpresa publikoak?

- Tasaciones y Consultoría, S.A.
- Técnica Cartográfica Andaluza, S.A.
- Galileo, Ingeniería y Servicios S.A.
- Getmapping España, S.L.
- Producción Informática de Navarra, S.L.
- GEA, Trabajos de Consultoría S.L.

2.- Zein da parte hartutako enpresa bakoitzaren guztizko kapital sozialaren gainean Trabajos

Catastrales S.A. enpresa publikoak daukan parte-hartzearen ehunekoa? Zein da partaidetza horien hasierako eta egungo balorazioa?

- Tasaciones y Consultoría, S.A. Sorrera urtea: 1991

=> Partaidetzaren ehunekoa: % 50

=> Inbertsioaren zenbatekoa: 75.127 euro

=> Kontabilitate-balio garbia 2005-12-31n: 902.788,15 euro

- Técnica Cartográfica Andaluza, S.A. Sorrera urtea: 1995

=> Partaidetzaren ehunekoa: % 50

=> Inbertsioaren zenbatekoa: 149.649 euro

=> Kontabilitate-balio garbia 2005-12-31n: 420.376,54 euro

- Galileo, Ingeniería y Servicios S.A. Eskuratzetxe-urtea: 1998

=> Partaidetzaren ehunekoa: % 30

=> Inbertsioaren zenbatekoa: 43.836,36 euro

=> Kontabilitate-balio garbia 2005-12-31n: 680.436,74 euro

- Getmapping España, S.L. Eskuratzetxe-urtea:

=> Partaidetzaren ehunekoa: % 12,61

=> Inbertsioaren zenbatekoa: 1.000.000 euro

=> 2005-12-31n, kitapen-aldian.

- Producción Informática de Navarra, S.L. Sorrera urtea: 2005

=> Partaidetzaren ehunekoa: % 10

=> Inbertsioaren zenbatekoa: 60.000 euro

=> Kontabilitate-balio garbia 2005-12-31n: 60.000 euro

- GEA, Trabajos de Consultoría S.L. Sorrera urtea: 2005

=> Partaidetzaren ehunekoa: % 50

=> Inbertsioaren zenbatekoa: 6.000 euro

=> Kontabilitate-balio garbia 2005-12-31n: 6.000 euro

3. Trabajos Catastrales S.A.rekin batera zein beste enpresa, entitate edo pertsona dira bazkideak edo parte hartzen dute Trabajos Catastrales S.A.k parte hartzen duen enpresetako bakoitzean?

- Tasaciones y Consultoría, S.A.: Grupo Corporativo Empresarial Caja Navarra.

- Técnica Cartográfica Andaluza, S.A.: partikularrak

- Galileo, Ingeniería y Servicios S.A.: enpresa pribatu eta partikularrak

- Getmapping España, S.L.: Caja Madrid, enpresa pribatu eta partikularrak

- Producción Informática de Navarra, S.L.: Navarra de Gestión para la Administración, S.A.

- GEA, Trabajos de Consultoría S.L.: partikularrak

4.- Zein ordezkari du eta zeinek ordezkatzeko parte hartutako entitateetako administrazio-, kudeaketa- eta kontrol-organoeetan.

Trabajos Catastrales, S.A. enpresak proposatuta, berak parte hartzen duen sozietateetako batzar nagusi bakoitzerako ondoko pertsona fisikoak izendatu ziren:

- Tasaciones y Consultoría, S.A.: José Miguel Asiain Muñoz eta Clara Martínez Senosiain

- Técnica Cartográfica Andaluza, S.A.: José Miguel Asiain Muñoz, Clara Martínez Senosiain eta Fermín Muñoz Muñoz

- Galileo, Ingeniería y Servicios S.A.: ez dago

- Getmapping España, S.L.: ez dago

- Producción Informática de Navarra, S.L.: Clara Martínez Senosiain

- GEA, Trabajos de Consultoría S.L.: Ángel Sanz Barea eta José Miguel Asiain Muñoz

5. Zein dira parte hartutako enpresen jarduerak, helburu soziala eta helbide soziala?

Parte hartutako enpresen jarduerak, bakoitzean helburu sozialetan ezarritakoak dira.

- Tasaciones y Consultoría, S.A.

Ondasunen tasazioa edo balorazioa orokorrean, eta bereziki, hipoteken merkatuan berme gisa onartzen direnak; merkatu hori, batez ere, martxoaren 25eko 2/1981 Legeak, martxoaren 17ko 685/1982 Errege Dekretuak eta 1989ko uztailaren 28ko Aginduak arautzen dute.

Helbide soziala: Espartzako errepidea, 5. beheka 31190 Zizur Txikia

- Técnica Cartográfica Andaluza, S.A.

Mota guztietako lan tekniko eta administratiboen egitea eta kudeatzea, pertsona fisiko eta juridikoentzat eta entitate publikoentzat; lan horiek, zeharka ala zuzenean, honetarako balio behar dute: ondasunei buruzko inbentario eta erregistro-

ak, landa- eta hiri-katastroak eta datu-bankuak orokorrean, lantzeko, ezartzeko, mantentzeko eta kudeatzeko.

Antzeko edo kideko enpresetan parte hartzea eta horiek ordezkatzera; bere helburu nagusiarekin, kartografia eta fotogrametriarekin alegia, lotutako patenteak, markak, modeloak, prozedurak, eta produktuak ustiatzea.

Sozietateak, aurreko lerroetan bildutako jarduerak zeharka gauzatu ahalko ditu, osoki edo hein batean, akzioen titulartasunaren bidez edo antzeko xedea daukaten beste sozietate batzuetan parte hartuz.

Helbide soziala: Américo Vespucio etorbidea, 5
A sarbidea – Cartuja eraikina
41092 Sevilla

- Galileo, Ingeniería y Servicios S.A.

Garapen teknologikoa, zerbitzu teknikoak ematea eta nazioko nahiz atzerriko patenteak sartzea, erregistratzea, ustiatzea eta merkaturatzea.

Helbide soziala: Sangradera kalea, 6 –
La Luz auzoa
38340 Tacoronte (Tenerife)

- Getmapping España, S.L.

Mota guztietako argazki edo airetiko mapak, zuzenean ala zeharka, diseinatu eta egitea; gero argazki eta mapa horiek, Internet edo bestelako bitartekoen bidez, ustiatzeko, banatzeko, merkaturatzeko eta/edo erakusteko.

Sozietateak, aurreko lerroetan bildutako helburu sozialeko jarduerak zeharka gauzatu ahalko ditu, osoki edo hein batean, akzioen titulartasunaren bidez edo antzeko xedea daukaten beste sozietate batzuetan parte hartuz.

- Producción Informática de Navarra, S.L.

Informatikako produktuen zerbitzuak egitea, ondokoak barne direla: behar diren hardwarea eta softwarea eskuratzea, mantentzea, kudeatzea eta

moldatzea; aplikazio informatikoak garatzea; eta erabiltzaileei laguntza eta euskarri zerbitzuak eskaintzea.

Aurreko lerroetan aipatutakoarekin lotutako jarduerak egiten dituzten enpresak sustatzea, horietan parte hartzea eta enpresa horiekin lankidetzan aritzea.

Zehaztutako jarduerak, zuzenean ala zeharka, osoki edo hein batean, egin ahal izanen dira, baita antzeko xedea duten beste sozietate batzuetan parte hartuz ere.

Helbide soziala: Orkoien kalea z/g
31011 Iruña

- GEA, Trabajos de Consultoría

Ondokoekin lotutako aholkularitza-jarduerak: enpresak, erakunde publiko eta pribatuak modernizatzeko informazio-sistemak, prozedurak, eta antolatze eta kudeatzeko baliabideak diseinatzea, garatzea, ezartzea eta merkaturatzea.

Bere softwarea edo besterena merkaturatzea.

Zehaztutako jarduerak, zuzenean ala zeharka, osoki edo hein batean, egin ahal izanen dira, baita antzeko xedea duten beste sozietate batzuetan parte hartuz ere.

Sozietateak ez du legeen arabera berariazko baldintza edo mugak behar dituen jarduerarik garatuko, baldintza eta muga horiek zeharo bete arte.

Helbide soziala: Sadarreko errepidea, z/g –
El Sario eraikina
31006 Iruña

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2006ko ekainaren 1ean

Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: Francisco Iribarren Fentanes

Galdera, Gobernuaren ordezkariak New Yorkera eginen duen bidaiari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak Gobernuaren ordezkariak ofizialak New Yorkera eginen duen bidaiari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko maiatzaren 22ko 50. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko ekainaren 9an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak galdera egin du Nafarroako ordezkariak ofizial batek, Nafarroako Gobernuaren lehendakaria buru zuela, New Yorkera egin duen bidaiari buruz. Hona hemen Nafarroako Gobernuaren eledun eta Toki Administrazioaren kontseilariaren erantzuna:

2005ean bezala, Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganberak Nafarroa Estatu Batuetan sustatzeko II. astea, "The Kingdom of Navarre visits New York & Chicago", antolatu zuen. Joan den urtean New Yorken egindako astearen emaitza onak ikusita eta Ipar Amerikan produktuak banatzen dituzten nekazaritzako elikagaien sektoreko profesionalak eskatuta, aurtengo edizioa Illinoisko hiriburura zabaltzea erabaki genuen.

Maiatzaren 15 eta 16an, Nafarroako ordezkariak ofizialak New York bisitatu zuen. Egindako ekitaldiren artean, Nafarroako produktu eta ardoen "work shop" bat egin zen "W New York Square" hotelean. Aurreko urtean erantzun zabala izan zuenez, 2006ko edizioan bi emanaldi antolatu ziren, bat 15ean eta bestea 16an. "Don Pablo" jatetxeko sukaldari-taldeak, Teresa Gil buru zuela –hiru urte jarraian Nafarroako Pintxoaren Astea irabazi duena–, bere plater eta pintxoak eskaini zituen; emanaldi horren helburua zen Nafarroako nekazaritzako elikagaiak eta ardoak ezagutaraztea eta horiek sustatzen eta merkaturatzen laguntzea.

15ean goizean, astelehenean, Sanz lehendakaria eta Armendariz kontseilaria, New Yorketik 40 kilometrotara dagoen IBM konpainiaren ikerketa-zentroa bisitatzea joan ziren, enpresa horrek gonbidatuta.

Bere aldetik, 16an goizean, asteartean, Yolanda Barcina alkateak New Yorkera hamar tour-operadore baina gehiagorekin bilera izan zuen Iruñeko eskaintza turistikoa ezagutarazteko eta sustatzeko.

Bestalde, maiatzaren 12tik 20ra bitartean, etxe-orratzen hiriko 12 jatetxetan aste gastronomikoa antolatu zen; aste horretan Nafarroako sukaldaritza ordezkariak dituzten plater eta menuak eskaini ziren. Ekitaldi horietaz gain, New Yorken, dastatzeak egin ziren denda espezializatuetan, Nafarroako ardoei buruzko mintegi bat "sommelier"ei zuzendua, eta "Wine Dinner" bat; azken honetan, 30 idazle gastronomikok eta kritiko espezializatuk Nafarroako ardoak dastatu zituzten.

17an, asteazkenean, Nafarroako Gobernuaren lehendakariak eta Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan kontseilariak Bostonen dagoen Massachussetseko Institutu Teknologikora (MIT) –munduko unibertsitatearik ospetsuenetako bat– egindako bisitaldian "Principia Technology Group" izeneko enpresarekin hitzarmen bat sinatu zuten. Hitzarmen hori dela-eta, Nafarroako Foru Komunitateak, Sodena enpresa publikoaren bidez, nanoteknologiaren arloan lau milioi euro inbertituko ditu.

Bisitaldiak iraun zituen 7 ordutan, Miguel Sanz eta José Javier Armendáriz laguntzen Javier Tejada fisiko nafarra eta Jesús Zabalo Sodenako zuzendaria egon ziren. Nanoteknologiarekin lotutako hainbat enpresa-proiekturen aurkezpena joateaz gain, Nafarroako ordezkariak "Principia"ko arduradunekin eta MITeko ingeniariak elektronikoko laborategiko zuzendariarekin elkarrizketatzeko aukera izan zuen.

Nanoteknologia "txikiaren iraultza" bezala ezagutzen da, abian dagoen ezagutzan oinarritzen den iraultza; eta molekulen banakako tratamenduen bidez, medikuntza, elektronika edo osagaien industria bezalako arloetan ezin susmatuzko atak ireki ditzake.

Hitzarmena sinatu zuen "Principia" enpresa Bostonen dago eta bere helburu soziala eta jardura nanoteknologiaren arloko berrikuntzara eta garapen teknologikora zuzentzen dira. Enpresa hori MITeko zenbait irakasle eta ikasle ohik sortu zuten; bere lehendakaria Henry Smith Dokorea da, nanoteknologiaren ikerkuntzan eta garapenean aitzindaria, aipatu unibertsitateko nanoteknolo-

gia katedrako jabea, eta, arlo horri dagokionez, nazioarteko zientifikorik ospetsuenetako bat.

Hitzarmen horren bidez, hiru jarduketa garatu nahi dira; lehenengoa da Sodenak Estatu Batuetako enpresa horren kapitalean parte hartzea, kapital sozialaren % 5 erosiz (500.000 euro), horrela, MITeko ikertzaileekin harreman estua lortuko da.

Hitzarmenak aurreikusitako bigarren jarduketa, "Principia-Navarra berrikuntza-zentroa" sortzea da; zentro hori Espainian eredu izanen da eta egindako hitzarmenaren babesean, MITen eta Espainian garatuko diren proiektu guztien arteko harremanak zentralizatuko ditu. Sodenak 1,5 milioi euro inbertituko ditu laborategi horretan, eta bere jarduketa nanoteknologiaren arloko I+G+B proiektuak garatzera eta aholkularitza lanak egitera zuzenduko da. Helburua da ikerketa-proiektu horietariko batzuk Nafarroan garatuko diren enpresa-proiektu bihurtzea.

Hitzartutako hirugarren jarduketa nanoteknologia-proiektutan inbertitzera zuzentzen den Espainiako lehenengo arrisku-kapitaleko funtsa sortzea da; hori ere, Principiarekin lankidetzan egingen da, horrela, berrikuntza-zentroaren jardueratik sor daitezkeen enpresa-proiektuek finkatzeko behar duten laguntza finantzarioa izan dezaten. Funtsak, hasiera batez, milioi bat euroko zuzkidura izanen du.

Arratsalde horretan, Sanz lehendakariak, Yolanda Barcina alkateak eta Cambridgeko –Bostondik gertu dagoen herria– alkateak Josefina Yanguas nafarrak egindako lana aitortzeko ekitaldian parte hartu zuten; emakume hori "Café Pamplona" ostatuaren jabea da, eta bere garaian kafetegi europarraren eredu sartu zuen Ipar Amerikako ekialdeko kostaldean. Kafetegi hori, Harvardeko unibertsitatetik gertu dagoenez, unibertsitateko sona handiko irakasle eta ikertzaile askoren bilgunea izan da, horietariko zenbait Nobel saridunak.

Chicagon, merkataritzako ekintzak eta ekintza instituzionalak tartekatu ziren. Maiatzaren 18an, Oak Parken dagoen Ernest Hemingway Museoa, Susan Boldey doktoreak "Navarra, además de España" izeneko hitzaldia eman zuen; ondoren, Sanz lehendakariak eta Barcina alkateak "Navarra Alive" izeneko argazki erakusketa inauguratu zuten; bilduma hori iaz erakutsi zen New Yorken, eta Daniel Aubry, Jimmy Hollander, Robert Frerk eta Shiyoshi Suguwara argazkilari estatubatuarrek eta José Luis Carrión, Enrique Pimoulier, Jorge Nagore eta Iñaki Zaldúa nafarrek sanferminei buruz duten ikuspuntua alderatzen da.

Halaber, maiatzaren 19an, Yolanda Barcinak aipatu museoko auditorioan idazle estatubatuarrek

Iruñearekin zuen harreman estuari buruzko hitzaldia eman zuen. Ondotik, idazle estatubatuarri buruzko bi argazki erakusketa inauguratu ziren; horietariko bat, "Hemingway Abroad" izenarekin, aipatu museoko atal iraunkor bihurtuko da.

Bestalde, maiatzaren 18an (osteguna), Chicagoko Intercontinental hotelean Nafarroako nekazaritzako elikagaiei eta ardoen "work shop" bat antolatu zen. Era berean, maiatzaren 12tik 20ra bitartean, hiri horretako 12 jatetxe "A Taste of Navarra" aste gastronomikoaren egoitza izan ziren.

Oraingoan, New Yorkera egindako bidaiaren helburu nagusiak izan ziren iazko emaitza onak sendotzea eta Estatu Batuetako hiri horretako elikagai eta edarien sektorean Nafarroa sustatzeko astea urteko ekitaldi garrantzitsu gisa finkatzea.

Chicagoko helburuak iaz New Yorken jarri zirenen antzekoak dira, honakoak alegia: Nafarroari buruzko ezagutza esnatzea eta sustatzea; merkatu horretan ari diren Nafarroako enpresen merkataritza-sustapena laguntzea; eta, aipatu merkatura sartu nahi diren enpresen prospekzioa erraztea.

Bostongo MITekin lortutako hitzarmenari dago-kionez, Nafarroako Gobernuaren iritziz, gure erki-degoak ikerketaren aldeko erabaki sendoa hartu beharko du, etorkizunean ere gaur egun dituen garapen ekonomiko eta gizarte ongizate maila handiak mantendu eta handitu nahi baditu. Bostonen zegoelarik, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Foru Komunitateak bere garaian energia berriztagarrien alde egin zuen apustu estrategikoa gogorarazi zuen eta orduan izandako arrakasta nanoteknologiaren arloan ere izateko itxaropena agertu zuen.

Ordezkaritza ofizialaren gastuak Nafarroako aurrekontu orokorren kargura ordaindu ziren; ordezkariak ondokoek osatu zuten: Nafarroako Gobernuko lehendakariak, haren komunikazio aholkulariak, bizkartzain lanak egiten zituen foruzain batek, Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan kontseilariak, eta Gobernuko Eledunaren Bulegoko eta Komunikazioko zuzendari nagusiak. Javier Tejada fisikari nafarra, aholkulari zientifiko gisa, ordezkariako kide izan zen New Yorkeko IBMren ikerketa-zentrora eta Bostongo "Massachusetts Institut Technological"era egindako bisitaldietan.

Nafarroako Gobernuko ordezkariaren aurrekontua, batetik, Nafarroa Estatu Batuetan sustatzeko II. asterako (2006) "The kingdom of Navarre visits New York & Chicago" eta, bestetik, New Yorkeko IBM zentrora eta Bostongo MITera egindako bisitaldietarako 31.012 eurokoa izan zen, eta gas-

tuak ondoko kontusailen kargura ordaintzen ari dira: 00000 010001 2301 912100 "Lehendakariaren eta kabinetekoen bidaia gastuak"; 00000 010000 2261 912100 "Lehendakariaren zenbait gastu"; 02100 051000 2300 132100 "Lokomozioa eta bidaia gastuak"; 80000 800000 2301 421100 "Kontseilariaren bidaia gastuak"; eta 22000 220000 2301 921500 "Lokomozioa eta bidaia gastuak".

Eledun honek harridura adierazi behar du Eusko Alkartasunak Estatu Batuetan Nafarroa sustatzeko bidaia zela-eta alde zurretik egin zituen balorazioengatik; izan ere, alderdi politiko horrek ez dizkio horrelako balorazioak zuzendu bera partaide den Eusko Jaurlaritzari. Eskura ditugun 2006ko lehenengo datuen arabera, Ibarretxe lehendakariak lau bidaia egin ditu Espainiatik kanpora; zehazki, Georgiara, Frantziara, Txilera eta Estatu Batuetara. Bestalde, Ezker Batuko sailburua Venezuelara eta Boliviara joan da, eta EAKo kide Joseba Azkarraga sailburua Boliviara eta Uruguayra. Esther Larrañaga eta Tontxu Campos sail-

buruak, EAKoak horiek ere, lehenengoa Mexikora eta bigarrena Estatu Batuetara, Erresuma Batura eta Belgikara joan ziren. Barne sailburua eta Kultura sailburua Frantziara bidaiatu ziren eta Nekazari-tza sailburua, berriz, Italiara eta Japoniara. Azkenik, Osasun sailburua Perura eta Txilera joan zen.

Beharbada komenigarria litzateke Eusko Alkartasuna taldeko eledunak azal dezan zergatik bere alderdiak Euskal Autonomia Erkidegoak kanpoko sustapenerako garatzen dituen ekimenei sostengua ematen dien eta Nafarroako Foru Komunitatean egiten dituen antzeko ekimenak, ordea, salatzeko dituen.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2006ko ekainean

Toki Administrazioiko kontseilari eta Nafarroako Gobernuko eleduna: Alberto Catalán Higuera

Galdera, Frantzisko Jatsukoaren jaiotzaren V. mendeurrenaren kariatara egindako inbertsioei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak Frantzisko Jatsukoaren jaiotzaren V. mendeurrenaren kariatara egindako inbertsioei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko maiatzaren 2ko 40. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko ekainaren 9an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeak galdera egin du Frantzisko Xabierkoaren jaiotzaren V. mendeurrenaren ospakizunarekin zerikusia duten zenbait gairi buruz. Hona Vianako Printzea Era-kundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna:

Galderak aipatzen dituen programatutako ekitaldi kulturalen aurrekontuari dagokionez, hona hemen ekitaldi bakoitzari dagozkion kontusailak zehaztuta:

1- Ignazio Loiolakoaren eta Frantzisko Xabierkoaren Kanonizaziorako Apoteosia. Apirilaren 7a. Ekitaldi hau Baluarte Fundazioaren egitarauaren barne dago.

Artista eta teknikariak	Alokairuak, kudeaketa eta programazioa	Banaketa eta publizitate gastuak	Zenbait gastu	BEZa	GUZTIRA
77.644	20.220	8.515	2.532	17.426	126.337

2- W.A. Mozarten Meza do minorrean.

Artista eta teknikariak	Alokairuak, kudeaketa eta programazioa	Banaketa eta publizitate gastuak	Zenbait gastu	BEZa	GUZTIRA
28.453	9.470	6.025	5.152	7.856	56.956

3.- Madredeus, Faulas do Tejo.

Artista eta teknikariak	Alokairuak, kudeaketa eta programazioa	Banaketa eta publizitate gastuak	Zenbait gastu	BEZa	GUZTIRA
48.000	11569	5.150	3.126	10.855	78.700

4- Noa. Live 2006 (bi kontzertu).

Artista eta teknikariak	Alokairuak, kudeaketa eta programazioa	Banaketa eta publizitate gastuak	Zenbait gastu	BEZa	GUZTIRA
107.200	30.068	9.725	3.252	24.055	174.400

5. The Chieftains

Artista eta teknikariak	Alokairuak, kudeaketa eta programazioa	Banaketa eta publizitate gastuak	Zenbait gastu	BEZa	GUZTIRA
57.000	12.931	7.244	2.480	12.745	92.400

6- "El Mundo Alrededor de Javier" izeneko Kongresua (BEZa barne).

Hitzaldiak	Kudeaketa eta programazioa	Mantenua eta joan-etorriak	Zenbait gastu	GUZTIRA
32.600	49.650	34.900	16.600	133.750

7- "Jaques Lipchitz encuentro de culturas" izeneko erakusketa (BEZa barne).

Garraioa eta muntaketa	Komisariotza eta koordinazioa	Segurtasuna eta polizak	Hedapena eta publizitatea	Zenbait gastu	GUZTIRA
111.975	57.164	35.012	12.611	21.500	238.262

8- Munduan barnako zikloa

Artista eta teknikariak	Alokairuak, kudeaketa eta programazioa	Banaketa eta publizitate gastuak	Zenbait gastu	BEZa	GUZTIRA
367.020	30.849	62.945	18.152	76.635	555.601

Xabierko Jesusen Lagundiaren Espiritualtasun Zentroan jarritako "San Francisco Javier en las Artes. El poder de la imagen" izeneko erakusketari dagokionez, Nafarroako Kutxa Fundazioak, Nafarroako Gobernuarekin sinatutako akordioaren bidez, antolatu eta finantzatu du. Akordio horren kopia erantsi dugu.

Bestalde, Xabier 2006 izeneko kontusaila 350.152 euroekin handitu zen. Gobernuaren 2006ko apirilaren 3ko erabakiaren bidez (kopia erantsi dugu), Jesusen Lagundiari Xabierko Gazteluko eta inguruetakoko sarbideak eraberritzeko dirulaguntza bat eman zitzaion. Hona hemen zehazturik:

– 300.000 euro oztupo arkitektonikoak desagerarazteko.

– 50.152 euro multzo arkitektonikoaren erabilera errazteko, barandak, megafonia eta kanpoko aldea jartzea.

Halaber Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legearen 50. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, 487.000 euroko kre-

dituak sortuko dira; kreditu horiek sinatutako lankidetzaren ondorioak dira; hitzarmenak sinatu dira Nafarroako Kutxa Fundazioarekin (300.000 euro), Nazioarteko Lankidetzarako Espainiako Agentziarekin (107.000 euro), Kultura Ministerioiko Kultura-arteko Komunikazio eta Lankidetzarako Zuzendaritza Nagusiarekin (60.000 euro) eta Allied Domecq upategiekin (20.000 euro). Hitzarmenen kopiak erantsi ditugu. Gaur egun, 300.000 euroko kredituak baino ez dira sortu, zehazki, Nafarroako Kutxa Fundazioarekin sinatutako hitzarmenari dagozkionak

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 31n

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleón

(Oharra: Aipatu eranskina foru parlamentarien eskura dago Legebiltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulego nagusietan).

Galdera, NA-411 errepidea –A15-Ostiz izenekoa– hobetzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak NA-411 errepidea –A15-Ostiz izenekoa– hobetzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko maiatzaren 15eko 47. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko ekainaren 9an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak galdera egin du NA-411 errepidea, A-15-Ostiz izenekoa, hobetzeari buruz. Hona hemen Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna.

Galdera:

2002-2009 urteetarako Nafarroako errepideei buruzko II. plan zuzendariaren barruan, Nafarroako Gobernuak aurreikusia dauka NA-411 errepidea hobetzea, A15-Ostiz izenekoa (A-15ean hasi eta Ostizteraino, N-121-A errepidean).

Parlamentari honek honakoa ezagutu nahi du errepide horri buruz:

1. Aurreikusitakoaren arabera, noiz hasi eta noiz bukatuko dira obrak?

2. Aurrekontuko zein kontusailen kargura egingen dira obrak?

3. Zein izan dira bide horretako istripu-indizeak azken urteetan?

4. Zenbateko trafikoa dago? Zenbatekoa da kamioien trafikoa?

Erantzuna

1. eta 2. "2002-2009 urteetarako errepideei buruzko II. plan zuzendarian" ez dago banakako jarduketa berri gisa "NA-411: A-15 – Ostiz errepidea hobetzea".

Hala ere, azken urteotan, zainketa integraleko kontusailen barruan lan garrantzitsuak egiten ari dira. Esaterako, 1999. urtean, errepide horretako Ostitzetik (28+470 k.p) NA-4230 Lizaso-Arraitz (gutxi gorabehera 20+000 k.p) errepidearen bidegurutzera tarteko zatia egokitzeko eta zabaltzeko lanak egin ziren, 876.592,55 euroko kostuarekin.

Aurten, 0+000 eta 17+320 k.p.-en tarteko zatia egokitzeko eta indartzeko jarduketara bat aurreikusita dago, 305.932,48 euroko kostua izanen duena.

3. Hona hemen azken bost urteetako istripu-indizeak:

Istripu-kopurua, guztira	47
Hildakoak izan ziren istripu-kopurua	7

Arrisku-indizea, guztira	69,4
Arrisku-indizea hildakoekin	10,34
Istripu ugariko tartearren arrisku-indizea	159
Hildakoen kopurua	3
Zauritu larrien kopurua	5
Zauritu arinen kopurua	11

Ikus daitekeenez, arrisku-indizea guztira 69,4 da, eta arrisku-indizea hildakoekin 10,34 da. Errepide bat edo errepide-zati bat istripu ugariko tartetzat hartzeko, arrisku-indizea hildakoekin 159 izan behar da; hau da, aipatu errepidekoa baino 15 aldiz handiagoa.

4. Hona hemen 2005eko errepide horretako datuak:

ZATIA	Eguneko batez besteko intentsitatea
1. zatia: A-15 – NA-4140 errepideko bidegurutzea	1.217 ibilgailu egunean, horietatik % 4,1 kamioiak
2. zatia: NA-4140 errepideko bidegurutzea Lizason	718 ibilgailu egunean, horietatik % 8,5 kamioiak
3. zatia: Lizaso-Ostitz	1.977 ibilgailu egunean, horietatik % 4,1 kamioiak

ZATIA Eguneko batez besteko intentsitatea Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 24an

Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria: Álvaro Miranda Simavilla

Galdera, jakiteko Kultura Departamentuak Tuteran agertu diren aztarna arkeologikoak kontserbatzeko asmorik ote duen.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak Kultura Departamentuak Tuteran agertu diren aztarna arkeologikoak kontserbatzeko asmorik ote duen jakiteko egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu dut. Galdera 2006ko maiatzaren 15eko 47. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko ekainaren 9an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak galdera egin du Tuterako Herrerías kalean aurkitutako aztarnekin lotutako zenbait gairi buruz. Hona Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna.

Kultura zuzendari nagusiaren apirilaren 14ko 128/2003 Ebazpenaren bidez, Tuterako Hiri Antolamendurako Plan Orokorako eta Tuterako Alde Zaharreko Babespenerako eta Barne Berrikuntza-

rako Plan Bereziko aldageta puntualaren berri ematen da:

“Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio-ko Kultura Zuzendaritza Nagusiak, Tuterako Udalak proposatutakoa kontuan izanik, hondakin arkeologikoak kentzea edo proiektuan integratzea erabakiko du.”

Aurtengo apirilaren 24an, Tuterako Udala Herrerías kalean sustatzen ari den lanak direla-eta, zirkulu-formako dorre baten hondakinak agertu ziren.

Azterketa arkeologikoa bukatu gabe dago; beraz, Nafarroako Gobernuak Kultura eta Turismo Departamentua, hondakin arkeologiko horiek ken-

tzeko edo proiektuan integratzeko, Tuterako Udalaren proposamenaren zain dago. Udalaren proposamenak, arkeologoek, Nafarroako Gobernuak Ondare Historikoaren Zerbitzuko teknikariek eta proiektua idazteaz arduratzen direnek aterako dituzten ondorioak kontuan izanen ditu.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko ekainaren 5ean

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleón

Galdera, “Erresuma baten aroa” erakusketan ikusgai egon diren zenbait pieza Lizarran jarriko bide den erakusketa iraunkor batera eramateari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak “Erresuma baten aroa” erakusketan ikusgai egon diren zenbait pieza Lizarran jarriko bide den erakusketa iraunkor batera eramateari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindut. Galdera 2006ko maiatzaren 15eko 47. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko ekainaren 9an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak galdera egin du “Erresuma baten aroa” erakusketarekin zerikusia duten zenbait gairi buruz. Hona Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna.

Joan diren urtarrilaren 26tik maiatzaren 2ra bitartean, BALUARTEen egindako “Erresuma baten aroa. Koroaren eta Iruñeko elizbarrutiaren bidegurutzeak” izeneko erakusketak Espainiako, Frantziako, Italiako, Alemaniako, Errusiako eta Estatu

Batuetako 48 museo, artxibo eta elizetatik ekarritako Erdi Aroko 270 artelan bildu zituen.

Erakusketako artelanen garrantzia eta kalitate-agatik, bitarteko tekniko eta material ugari erabili eta jarri ziren; besteak beste, ikus-entzunezkoak, elementu grafikoak, proiektagailuak, beira-arasak eta euskarriak.

Erakusketak izan zuen berealdiko harrera kontuan izanik, eta erakusketa zela-eta sortutako materialak aprobetxatzeko asmoz, Kultura eta Turismo Departamentuak, Iruña-Tuterako Artzapezpikutzarekin adostuta, Lizarrako Santa María Jus del Castillo elizaren jabea baita, erakusketaren komisario Isidro Bango Torviso jaunari aipatu elizan erakusketa iraunkorra jartzeko proiektua idazteko arduraren eman dio. Bai erakusketa osatuko duten artelanek bai erakusketa antolatzeak eta abiarazteak izanen duten kostua, aipatu proiektua egin eta gero balortuko dira; proiektua oraindik idazten ari da, eta beraz, ezinezkoa da une honetan horiek zehaztea.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko ekainaren 5ean

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleón

Galdera, Frantzisko Jatsu eta Azpilkuetaren jaiotzaren V. mendeurrena ospatzeko ekitaldien barruan Kawaguchiko abesbatzak eman beharreko kontzertua egiteko tokia aldatzeko arrazoiari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak Frantzisko Jatsu eta Azpilkuetaren jaiotzaren V. mendeurrena ospatzeko ekitaldien barruan Kawaguchiko abesbatzak eman beharreko kontzertua egiteko tokia aldatzeko arrazoiari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko maiatzaren 15eko 47. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko ekainaren 9an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak galdera egin du San Frantzisko Xabierkoaren jaiotzaren V. mendeurrenarekin zerikusia duten zenbait gairi buruz. Hona Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna:

San Frantzisko Xabierkoaren jaiotzaren V. mendeurrena dela-eta programatutako ekitaldien barruan, apirilaren 28an, Japoniako Kawaguchi abesbatzak eta "Pablo Sarasate" Kontserbatorioko orkestrak eskainitako kontzertua Erriberriko frantziskotarren elizan izan zen, eta ez Xabierko Frantzisko Jatsukoaren aretoan, bi arrazoi hauengatik: lehenengo arrazoa da Yamaguchiko abesbatzak kontzerturako aukeratutako programa maiatzaren 21ean Frantzisko Jatsukoaren aretoan eman zuen kontzertuko programa bera zela; bigarren arrazoa da hala Frantzisko Xabierkoaren V. mendeurrenako antolatzaileek nola Erriberriko Udalak kontzertua herri horretan emateko interesa agertu zutela.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko ekainaren 5ean

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleón

Galdera, Nafarroako Gobernuaren enkarguz Víctor Manuel Arbeloaren liburu bat argitaratzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak Nafarroako Gobernuaren enkarguz Víctor Manuel Arbeloaren liburu bat argitaratzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko maiatzaren 15eko 47. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko ekainaren 9an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak galdera egin du Victor Manuel Arbeloa jaunaren "Perversiones políticas del lenguaje" izeneko liburuarekin zerikusia duten zenbait gairi buruz. Hona Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna:

Galderak aipatzen duen gaiarekin loturik, 2005ean Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeak hainbat parlamentu-ekimen aurkeztu zuen. Bere garaian behar bezalako erantzuna izan zuten ekimenak hauek dira: 1220 zenbakiko informazio eskea, 2005eko ekainaren 13an erantzun genuena; 141. galdera idatzia, erantzuna urriaren 26ko 108. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zena; eta, 2005eko irailaren 15eko Osoko Bilkuran erantzundako ahozko galdera, 57. bilkura egunkarian agertzen dena.

Bere garaian Nafarroako Parlamentura bidalitako informazioa berresteko honakoa esan behar dugu: Nafarroako Gobernu, eta zehazki Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentua, bere eskumenen eta helburuen esparruan, lankidetzan aritu ohi da Foru Komunitateko zenbait idazle eta intelektualekin, haien literatur-lana ezagutarazteko.

Galderak aipatu duen liburua da Madrilgo Biblioteka Nueva argitaletxearekin argitalpenak elkarrekin kaleratzeko sinaturiko akordioaren emaitza; akordio horren bidez lanaren 2.000 ale argitaratu ziren, 8.510 euroko kostuarekin, hau da, argitalpenak izan zuen kostuaren % 50. Gastu hori 2004ko gastuen aurrekontuko "Liburuen eta bestelako

argitalpenen edizioa" izeneko A1004-A1420-2400-455200 kontusailaren kargura ordaindu zen.

Lehen Hezkuntza eta Kultura Departamentua zen eta orain Kultura eta Turismokoa den Departamentuak lankidetzara jarraia izan du Biblioteca Nueva argitaletxearekin, azken urteotan elkarrekin argitaraturiko liburuek erakusten duten bezala:

1. Tramas de identidad. Literatura y regionalismo en Navarra (1870–1960), Iñaki Iriarte Lópezek idatzia, Madril, 2000.

2. Navarra y el nacionalismo vasco. Ensayo histórico-político sobre las señas de identidad originaria del Viejo Reino, José Manuel Azcona Pastorrek eta Joaquín Gortari Unanuak idatzia. Madril, 2001.

3. Navarra como problema. Nación y nacionalismo en Navarra, Miguel Izu Bellosok idatzia, Madril, 2001.

4. Perversiones políticas del Lenguaje, Víctor Manuel Arbeloak idatzia, Madril, 2004.

Halaber, argitalpenak elkarrekin kaleratzeko xedez zenbait organismo eta erakunderekin sinaturiko akordioen babesean argitaraturiko beste lan batzuk ere izan dira; besteak beste, honakoak:

– Arturo Campión entre la Historia y la Cultura, José Javier López Antónek idatzia. Sabino Arana Kultur Elkargoarekin batera argitaratua.

– Gayarre y su tiempo, zenbait egileren elkarlana. Iberdurekin batera argitaratua.

– Las peregrinaciones a Santiago de Compostela. Iberdrolarekin batera argitaratua.

– La catedral de Pamplona, zenbait egileren elkarlana, Nafarroako Kutxarekin batera argitaratua.

– Catálogo Monumental de Navarra, 9 liburuki. Nafarroako Unibertsitatearekin eta Iruñeko Artzapezpikutzarekin batera argitaratua.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko ekainaren 5ean

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleón

Galdera, Nafarroako Gobernuaren enplegurako laguntzei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak Nafarroako Gobernuaren enplegurako laguntzei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko maiatzaren 22ko 50. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko ekainaren 15ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak galdera egin du Nafarroako Gobernuak enpresei enplegurako eta behin betiko kontratuak sustatzeko emandako dirulaguntzei buruz. Hona hemen Nafarroako Gobernuak Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan kontseilariaren erantzuna:

1 eta 2. galderak.

Lehenengo eta bigarren eskaerei dagokienez, lehenik eta behin esan behar dugu aipatutako dirulaguntzak Estatuko administrazioak ezartzen eta tramitatzen dituela; normalean, dekretu mailako arauen bidez eta enpresek ordaindu beharreko kuotetan egindako hobarien bidez.

Dena den, departamentu honen erantzukizun zuzena ez izan arren, Estatuko administrazioak emandako informazioa eskura jarriko dizuegu: aipatu kolektiboek jasotako laguntza-tipologien baldintzak laburbiltzen dituzten taulak eta Nafarroan azken urteotan Estatuko administrazioak eman dituen laguntzen kopuruari buruzko informazioa.

3. galdera.

2005ean, inbertsioetarako eta enplegurako emandako dirulaguntzen zenbatekoa 46.839.165,93

euro izan da, horietatik 42.939.166,93 euro inbertsioak finantzatzeko eta 3.765.981,39 euro kontratazio mugagabeak finantzatzeko izan dira; horri esker 1.131 lanpostu finko sortu dira eta 203 lanpostu finkatu dira (behin-behineko lanpostuak ziren eta orain lanpostu finkoak dira).

2006. urterako gastu aurreikuspenak hauek dira:

Inbertsioa: 41.913.227,9 euro.

Enplegua: 3.272.297 euro kontratazio mugagabeak finantzatzeko, 974 lanpostu finko eta 191 lanpostu finkatzea (behin-behineko lanpostuak ziren eta behin betiko lanpostuak izanen dira).

2007. urterako hauek dira aurreikuspenak:

Inbertsioa: 33.688.615,8 euro.

Enplegua: 1.464.325,4 euro kontratazio mugagabeak finantzatzeko, 419 lanpostu finko eta 113 lanpostu finkatzea (behin-behineko lanpostuak ziren eta behin betiko lanpostuak izanen dira).

2004ko zerga-aldian, enplegua sustatzeko kenkari fiskalen zenbatekoa 14.833.824,54 eurokoa izan zen.

2005. urteari buruzko datuak ezin dira eman aitorpena egiteko epea oraindik ez delako bukatu, eta 2006. urteari buruzko datuak ezin dira eman ekitaldia oraindik ez delako bukatu.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko ekainaren 9an

Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan kontseilaria: José Javier Armendáriz Quel

(Oharra: aipatutako eranskinak foru parlamentarien esku daude Legebiltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan).

Galdera, hautatutako ikastetxean matrikulatzerik izan ez duten ikasleei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak hautatutako ikastetxean matrikulatzerik izan ez duten ikasleei buruz egingandako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu dut. Galdera 2006ko maiatzaren 22ko 50. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko ekainaren 15ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak 2006/2007 ikasturterako ikasleen aurrematrikulazioari buruzko galdera egin du. Hona hemen Hezkuntza kontseilariaren erantzuna:

Lehenbizikoa

Eskola eta Lanbide Irakaskuntzaren zuzendari nagusiaren otsailaren 21eko 154/2006 Ebazpenaren bidez, Nafarroako Foru Komunitatearen diru publikoarekin sostengatutako Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan 2006-2007 ikasturtean ikasleak onartzeko prozedura-arauak onetsi dira; ebazpen hori eman zen 56/1994 Foru Dekretuan –130/1996 Foru Dekretuak aldatu zuena– ezarritakoa garatzeko.

Ebazpen horrek, 5. oinarrian, hauxe ezartzen du: “Eskatzaile bakoitzak eskabide bakarra aurkeztuko du, non adierazi beharko baitu zein ikastetxetan nahi duen eskola-postua, bere lehentasunen arabera. Eskabide hori lehenbiziko tokian jarri duen ikastetxeko administrazio bulegoan aurkeztu beharko da. Oso-osorik bete beharko da (...)”

Bestalde, 15.1. oinarrian honakoa ezartzen du: “Epe arrunta: Eskolatze Batzordeak eskola postu bat esleituko die ezarritako epeetan aurrenik eskatu ikastetxean posturik lortu ez duten ikasleei”.

Ikastetxe publikoetan aurrematrikulazioa egin duten eta lehenbiziko tokian eskatutako ikastetxera sartu ez diren ikasle guztiei, Eskolatze Batzordeak, eskatutako ikastetxearen eragin eremuaren barruan dagoen eta hizkuntza-eredu bera duen ikastetxe batean eskolatzeko aukera eskaintzen die.

Eskatutako lehenbiziko tokitik kanpo gelditu diren 40 ikasleetatik:

– 28 ikaslek bigarren edo hirugarren tokian eskatutako ikastetxean lortu dute eskola-postua edo Eskolatze Batzordeak eskainitako laugarren aukera onartu dute.

– 11 ikaslek ez dute nahi izan Hezkuntza Departamentuko Eskolatze Batzordeak eskainitako ikastetxean matrikulatu: horietatik 6k izena emana zuten Patxi Larrainzar ikastetxe publikorako eta beste bostek Elorri ikastetxe publikorako; horiek ikastetxe bakarrerako eskabidea egina zuten.

– Batek ezin izan du lehen eta bigarren tokian eskatutako ikastetxeetan matrikula egin (Patxi Larrainzar eta Cardenal Ilundain, hurrenez hurren) eta Eskola Batzordeak eskainitako ikastetxean ez du matrikula egin izan nahi.

Bigarrena

Ondoko tauletan zehazten dira, herriz herri eta hizkuntza-ereduaren arabera, ikastetxe publikoetan guztira aurkeztutako eskabideak eta lehenbiziko tokian eskatutako ikastetxean matrikulatu ezin izan diren ikasleen kopurua. Informazioa 2006-2007 ikasturteko hiru urteko haurrei buruzkoa da.

Eredua	Herria	Eskabideak	Lehengo tokian eskatutako ikastetxera sartu ez diren ikasleak
A/G	Tutera	108	10
A/G, guztira		2105	10
British	Iruña	140	14
British, guztira		190	14
D	Iruña	368	16
D, guztira		1240	16
Guztira		3535	40

Hirugarrena

Hezkuntza Departamentuak eskura dituen datuen arabera eremu euskalduneko ikasle bakar batek ere ez du bere eskualdetik atera behar D ereduan ikasteko.

2006/2007 ikasturtean, Basaburuko 7 ikasle Irurtzunera joanen dira Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasketak A ereduan egiteko.

2006/2007 ikasturtean, Ultzamako 33 ikasle Iruñera joanen dira Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasketak A ereduan egiteko; halaber, Ultzamako beste 8 ikaslek gauza bera egingen dute Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza A ereduan egiteko.

Derrigorrezko hezkuntzan, dagokien ikastetxean edo udalerriko edozein ikastetxetan edo 5 kilometro baino gertuagoko udalerrietako ikastetxetan aukeratutako hizkuntza-ereduan eskolatuak izan ez diren ikasleentzat, Hezkuntza Departamentuak urtero laguntza-deialdi bat egiten du garraio eta jantoki gastuetarako.

Ondoko taulan 2005-2006 ikasturteko deialdian ikastetxe publikoetara eta itundutako ikastetxeetara joateko eman diren bekak zehazten dira; jatorrizko udalerraren arabera ikasle kopurua ere zehaztuta dago. Une honetan, 2006/2007 ikasturteko deialdira aurkez daitezkeen ikasleen datuak ez ditugu eskura, baina laster argitaratuko dira.

Ikastetxea (hizkuntza-eredua)	Ikasleak bizi diren herria	Ikasle kopurua
LIZARRA IKASTOLA (D)	ABARTZUZA	1
LIZARRA IKASTOLA	ALLO	2
LIZARRA IKASTOLA	ARANDIGOIEN	1
LIZARRA IKASTOLA	ARELLANO	3
LIZARRA IKASTOLA	ARELLANO	2
LIZARRA IKASTOLA	ARROITZ	2
LIZARRA IKASTOLA	BARGOTA	2
LIZARRA IKASTOLA	VIANA	2
LIZARRA IKASTOLA	DEIKAZTELU	1
LIZARRA IKASTOLA	EULTZ-ALLIN	1
LIZARRA IKASTOLA	IBIRIKU-DEIERRI	1
LIZARRA IKASTOLA	LARRION	2
LIZARRA IKASTOLA	LEZAUN	2
LIZARRA IKASTOLA	LODOSA	7
LIZARRA IKASTOLA	LUKIN	1
LIZARRA IKASTOLA	MORENTIN	2
LIZARRA IKASTOLA	OTEITZA	2
LIZARRA IKASTOLA	SARTAGUDA	2
LIZARRA IKASTOLA	VILLAMAYOR	1
LIZARRA IKASTOLA	ZUDAIRI	1
LIZARRA IKASTOLA	ZURUKUAIN	1
REMONTIVAL IP (D)	ALLO	9
TAFALLAKO IKASTOLA (D)	AMUNARRIZKETA	1
TAFALLAKO IKASTOLA	ARTAXOA	5
TAFALLAKO IKASTOLA	ARTARIAIN	3
TAFALLAKO IKASTOLA	BARASOAIN	6
TAFALLAKO IKASTOLA	CAPARROSO	8
TAFALLAKO IKASTOLA	GARINOAIN	7
TAFALLAKO IKASTOLA	LARRAGA	3
TAFALLAKO IKASTOLA	MENDIBIL	3
TAFALLAKO IKASTOLA	MURILLO EL FRUTO	1
TAFALLAKO IKASTOLA	ERRIBERRI	42
TAFALLAKO IKASTOLA	PUIU	5
TAFALLAKO IKASTOLA	SAN MARTIN UNX	2
TAFALLAKO IKASTOLA	SANTSOAIN	2
TAFALLAKO IKASTOLA	UXUE	2
ZANGOZAKO IKASTOLA (D)	OIBAR	18
ZANGOZAKO IKASTOLA	KASEDA	12
ZANGOZAKO IKASTOLA	LEATXE	1
ZANGOZAKO IKASTOLA	LEDEA	4
ZANGOZAKO IKASTOLA	IRUNBERRI	20
ZANGOZAKO IKASTOLA	MORIONES	2
ZANGOZAKO IKASTOLA	NARDOZE-ANDURRA	2
ZANGOZAKO IKASTOLA	ESA	7
SAN FERMIN IKASTOLA (D)	ARAZURI	2
SAN FERMIN IKASTOLA	ARLEGI	3
SAN FERMIN IKASTOLA	BERIAIN	4
SAN FERMIN IKASTOLA	ELORTZ	1
SAN FERMIN IKASTOLA	EZKIROTZ	2
SAN FERMIN IKASTOLA	EZKIROTZ (GALAR)	2
SAN FERMIN IKASTOLA	IMARKOAIN	3
SAN FERMIN IKASTOLA	ELO	2
SAN FERMIN IKASTOLA	MURUZABAL	4
SAN FERMIN IKASTOLA	NOAIN	49

Ikastetxea (hizkuntza-eredua)	Ikasleak bizi diren herria	Ikasle kopurua
SAN FERMIN IKASTOLA	SUBITZA	1
SAN FERMIN IKASTOLA	TAXOARE	2
SAN FERMIN IKASTOLA	DORRE-ELORTZIBAR	1
SAN FERMIN IKASTOLA	ZARIKIEGI	2
SAN FERMIN IKASTOLA	ZULUETA	4
PAZ DE ZIGANDA IKASTOLA (D)	ARANGUREN	2
PAZ DE ZIGANDA IKASTOLA	BERIAIN	2
PAZ DE ZIGANDA IKASTOLA	ETXAGUE	1
PAZ DE ZIGANDA IKASTOLA	NOAIN	1
JASO IKASTOLA (D)	BERIAIN	5
JASO IKASTOLA	ARRIZABALAGA	4
JASO IKASTOLA	ELO	1
JASO IKASTOLA	NOAIN	1
JASO IKASTOLA	OBANOS	1
JASO IKASTOLA	TAXOARE	1
AMAIUR IKASTOLA (D)	BERIAIN	2
AMAIUR IKASTOLA	EZKIROTZ	4
AMAIUR IKASTOLA	OBANOS	2
AMAIUR IKASTOLA	OTXOBI	1
AMAIUR IKASTOLA	GETZE GALAR	3
AMAIUR IKASTOLA	SUBITZA	2
AMAIUR IKASTOLA	TIEBAS	2
AMAIUR IKASTOLA	UTERGA	2
AMAIUR IKASTOLA	ZULUETA	1
HEGOALDE IKASTOLA (D)	BERIAIN	3
HEGOALDE IKASTOLA	ARRIZABALAGA	1
HEGOALDE IKASTOLA	ESPARTZA	1
HEGOALDE IKASTOLA	EZKIROTZ	2
HEGOALDE IKASTOLA	IMARKOAIN	2
HEGOALDE IKASTOLA	LABIANO	5
HEGOALDE IKASTOLA	NOAIN	10
HEGOALDE IKASTOLA	TAXOARE	2
HEGOALDE IKASTOLA	Tiebas	2
GARES IP (D)	MENDIGORRIA	1
GARES IP	MURU ARTEDERRETA	1
SAGRADO CORAZON (B/A)	LESAKA	5
SAN FRANCISCO JAVIER IP	ARANGUREN	1
SAN FRANCISCO JAVIER IP	BERIAIN	1
CORTES IP (A)	BUÑUEL	1
MENDILLORRI IV IP	TIEBAS	2
BIURDANA BHI	ARBONIES	1
ITURRAMA BHI	NOAIN	1

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko ekainaren 8an

Hezkuntza kontseilaria: Luis Campoy Zueco

Galdera, Nafarroan azken urteotan haur hezkuntzan izan diren aurrematrikulazio eta matrikulazio datuei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José Luis Etxegarai Andueza jaunak Nafarroan azken urteotan haur hezkuntzan izan diren aurrematrikulazio eta matrikulazio datuei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu dut. Galdera 2006ko maiatzaren 29ko 51. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko ekainaren 16an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Askotariko Parlamentu Taldeko foru parlamentari José Luis Etxegarai Andueza jaunak galdera egin du Haur Hezkuntzako (3 urte) aurrematrikulazioari eta matrikulazioari buruzko datu estatistikoaren inguruan, 2000-2001 ikasturteetik 2006-2007 ikastertera. Hona hemen Hezkuntza kontseilariaren erantzuna.

2000/2001 IKASTURTEA, IRUÑA ETA IRUÑERRIA						
Eskainitako eskola-postuak						
	A	B	D	G	I	Guztira
Publikoa						
Itundua	DATURIK EZ					
Guztira						
Aurre-matrikulazioko eskariak						
	A	B	D	G	I	Guztira
Publikoa						
Itundua	DATURIK EZ					
Guztira						
Behin betiko matrikulazioa						
	A	B	D	G	I	Guztira
Publikoa	579	0	732	200	0	1511
Itundua	211	0	222	1032	0	1465
Guztira	790	0	954	1232	0	2976
2000/2001 IKASTURTEA, NAFARROAKO BESTE ESQUALDEAK						
Eskainitako eskola-postuak						
	A	B	D	G	I	Guztira
Publikoa						
Itundua	DATURIK EZ					
Guztira						
Aurre-matrikulazioko eskariak						
	A	B	D	G	I	Guztira
Publikoa						
Itundua	DATURIK EZ					
Guztira						
Behin betiko matrikulazioa						
	A	B	D	G	I	Guztira
Publikoa	560	2	392	580	0	1534
Itundua	70	5	159	207	0	441
Guztira	630	7	551	787	0	1975

2001/2002 IKASTURTEA, IRUÑA ETA IRUÑERRIA						
Eskainitako eskola-postuak						
	A	B	D	G	I	Guztira
Publikoa	603	0	714	208	0	1525
Itundua	190	0	211	1024	0	1425
Guztira	793	0	925	1232	0	2950
Aurre-matrikulazioko eskariak						
	A	B	D	G	I	Guztira
Publikoa	626	0	727	258	0	1611
Itundua	202	0	211	1049	0	1462
Guztira	828	0	938	1307	0	3073
Behin betiko matrikulazioa						
	A	B	D	G	I	Guztira
Publikoa	630	0	717	246	0	1593
Itundua	212	0	212	1027	0	1451
Guztira	842	0	929	1273	0	3044
2001/2002 IKASTURTEA, NAFARROAKO BESTE ESKUALDEAK						
Eskainitako eskola-postuak						
	A	B	D	G	I	Guztira
Publikoa	582	4	358	590	0	1534
Itundua	86	9	166	222	0	483
Guztira	668	13	524	812	0	2017
Aurre-matrikulazioko eskariak						
	A	B	D	G	I	Guztira
Publikoa	606	5	380	636	0	1627
Itundua	88	9	170	232	0	499
Guztira	694	14	550	868	0	2126
Behin betiko matrikulazioa						
	A	B	D	G	I	Guztira
Publikoa	598	3	376	635	0	1612
Itundua	70	8	170	249	0	497
Guztira	668	11	546	884	0	2109

2002/2003 IKASTURTEA, IRUÑA ETA IRUÑERRIA						
Eskainitako eskola-postuak						
	A	B	D	G	I	Guztira
Publikoa	544	0	655	231	0	1430
Itundua	216	0	212	1095	0	1523
Guztira	760	0	867	1326	0	2953
Aurre-matrikulazioko eskariak						
	A	B	D	G	I	Guztira
Publikoa	650	0	705	280	0	1635
Itundua	228	0	216	1140	0	1584
Guztira	878	0	921	1420	0	3219
Behin betiko matrikulazioa						
	A	B	D	G	I	Guztira
Publikoa	634	0	721	243	0	1598
Itundua	208	0	246	1121	0	1575
Guztira	842	0	967	1364	0	3173
2002/2003 IKASTURTEA, NAFARROAKO BESTE ESKUALDEAK						
Eskainitako eskola-postuak						
	A	B	D	G	I	Guztira
Publikoa	578	0	439	594	0	1611
Itundua	76	8	172	220	0	476
Guztira	654	8	611	814	0	2087
Aurre-matrikulazioko eskariak						
	A	B	D	G	I	Guztira
Publikoa	540	0	425	725	0	1690
Itundua	79	9	175	255	0	518
Guztira	619	9	600	980	0	2208
Behin betiko matrikulazioa						
	A	B	D	G	I	Guztira
Publikoa	553	1	399	685	0	1638
Itundua	80	10	165	256	0	511
Guztira	633	11	564	941	0	2149

2003/2004 IKASTURTEA, IRUÑA ETA IRUÑERRIA						
Eskainitako eskola-postuak						
	A	B	D	G	I	Guztira
Publikoa	605	0	704	264	0	1573
Itundua	275	0	225	1127	0	1627
Guztira	880	0	929	1391	0	3200
Aurre-matrikulazioko eskariak						
	A	B	D	G	I	Guztira
Publikoa	572	0	669	235	0	1476
Itundua	227	0	223	1135	0	1585
Guztira	799	0	892	1370	0	3061
Behin betiko matrikulazioa						
	A	B	D	G	I	Guztira
Publikoa	621	0	677	237	46	1581
Itundua	224	0	226	1139	0	1589
Guztira	845	0	903	1376	46	3170
2003/2004 IKASTURTEA, NAFARROAKO BESTE ESKUALDEAK						
Eskainitako eskola-postuak						
	A	B	D	G	I	Guztira
Publikoa	609	0	450	683	0	1742
Itundua	103	8	172	231	0	514
Guztira	712	8	622	914	0	2256
Aurre-matrikulazioko eskariak						
	A	B	D	G	I	Guztira
Publikoa	552	4	468	704	0	1728
Itundua	78	9	162	244	0	493
Guztira	630	13	630	948	0	2221
Behin betiko matrikulazioa						
	A	B	D	G	I	Guztira
Publikoa	552	4	460	749	44	1809
Itundua	86	8	200	236	0	530
Guztira	638	12	660	985	44	2339

2004/2005 IKASTURTEA, IRUÑA ETA IRUÑERRIA						
Eskainitako eskola-postuak						
	A	B	D	G	I	Guztira
Publikoa	592	0	650	252	48	1542
Itundua	325	0	225	1075	0	1625
Guztira	917	0	875	1327	48	3167
Aurre-matrikulazioko eskariak						
	A	B	D	G	I	Guztira
Publikoa	576	0	838	257	75	1746
Itundua	248	0	225	1173	0	1646
Guztira	824	0	1063	1430	75	3392
Behin betiko matrikulazioa						
	A	B	D	G	I	Guztira
Publikoa	609	0	850	289	75	1823
Itundua	250	0	226	1190	0	1666
Guztira	859	0	1076	1479	75	3489
2004/2005 IKASTURTEA, NAFARROAKO BESTE ESKUALDEAK						
Eskainitako eskola-postuak						
	A	B	D	G	I	Guztira
Publikoa	580	4	454	765	0	1803
Itundua	125	25	250	250	0	650
Guztira	705	29	704	1015	0	2453
Aurre-matrikulazioko eskariak						
	A	B	D	G	I	Guztira
Publikoa	573	0	441	768	0	1782
Itundua	78	10	161	249	0	498
Guztira	651	10	602	1017	0	2280
Behin betiko matrikulazioa						
	A	B	D	G	I	Guztira
Publikoa	582	0	424	738	48	1792
Itundua	80	11	171	263	0	525
Guztira	662	11	595	1001	48	2317

2005/2006 IKASTURTEA, IRUÑA ETA IRUÑERRIA						
Eskainitako eskola-postuak						
	A	B	D	G	I	Guztira
Publikoa	678	0	914	436	50	2078
Itundua	275	0	225	1000	0	1500
Guztira	953	0	1139	1436	50	3578
Aurre-matrikulazioko eskariak						
	A	B	D	G	I	Guztira
Publikoa	552	0	848	251	95	1746
Itundua	263	0	225	1244	0	1732
Guztira	815	0	1073	1495	95	3478
Behin betiko matrikulazioa						
	A	B	D	G	I	Guztira
Publikoa	593	0	821	262	95	1771
Itundua	270	0	225	1245	0	1740
Guztira	863	0	1046	1507	95	3511
2005/2006 IKASTURTEA, NAFARROAKO BESTE ESKUALDEAK						
Eskainitako eskola-postuak						
	A	B	D	G	I	Guztira
Publikoa	585	0	435	767	0	1787
Itundua	115	25	215	259	0	614
Guztira	700	25	650	1026	0	2401
Aurre-matrikulazioko eskariak						
	A	B	D	G	I	Guztira
Publikoa	570	0	452	761	0	1783
Itundua	78	7	196	230	0	511
Guztira	648	7	648	991	0	2294
Behin betiko matrikulazioa						
	A	B	D	G	I	Guztira
Publikoa	618	0	466	763	0	1847
Itundua	117	7	194	207	0	525
Guztira	735	7	660	970	0	2372

2006/2007 IKASTURTEA, IRUÑA ETA IRUÑERRIA						
Eskaintako eskola-postuak						
	A	B	D	G	I	Guztira
Publikoa	729	0	900	371	150	2150
Itundua	346	0	225	1183	0	1754
Guztira	1075	0	1125	1554	150	3904
Aurre-matrikulazioko eskariak						
	A	B	D	G	I	Guztira
Publikoa	520	0	751	243	140	1654
Itundua	375	0	271	1311	0	1957
Guztira	895	0	1022	1554	140	3611
2006/2007 IKASTURTEA, NAFARROAKO BESTE ESQUALDEAK						
Eskaintako eskola-postuak						
	A	B	D	G	I	Guztira
Publikoa	959	0	750	1066	50	2825
Itundua	110	0	175	270	0	555
Guztira	1069	0	925	1336	50	3380
Aurre-matrikulazioko eskariak						
	A	B	D	G	I	Guztira
Publikoa	584	0	489	758	50	1881
Itundua	109	0	221	273	0	603
Guztira	693	0	710	1031	50	2484

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko ekainaren 13an

Hezkuntza kontseilaria: Luis Campoy Zueco

Galdera, Castejónko ziklo konbinatuko zentral termikoaren ingurumen eraginaren adierazpenari jarraikiz egin beharreko ingurumen zaintzako programari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Txentxo Jiménez Hervás jaunak Castejónko ziklo konbinatuko zentral termikoaren ingurumen eraginaren adierazpenari jarraikiz egin beharreko ingurumen zaintzako programari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko maiatzaren 29ko 51. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko ekainaren 16an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Aralar Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Txentxo Jiménez Hervás jaunak ELEREBROK Castejónen sustatzen duen zentral termikoarekin zerikusirik duten zenbait gai buruz galdetu eta idatzizko erantzuna eskatu du. Hona hemen Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren erantzuna:

10.2.1 Atmosferako isuriak zaintzea.- Tximiniari instalatutako neurketa jarraituko sistemen bitartez, kutsatzaile bakoitzerako ezarritako isurpen mailen betetzea zainduko da, adierazpen honetako 3.3, 3.4 eta 3.5 baldintzetan ezarritakoari jarraituz.

- Ezarrita al daude zentralerako tximiniatan neurketa jarraituko sistemak, sufre dioxidoa, nitrogeno oxidoa eta ozonoa neurtzeko?

Sistema horiek ezarrita daude, ozonoa neurtzeko izan ezik; izan ere, ozonoa ez da errekuntzan sortzen den kutsatzailea, eta, beraz, ez dago ozono isuririk.

- Ba al dago sistema informatiko bat denbora errealean Nafarroako kutsadura atmosferikoa zaintzeko sareari ematen dizkiona aipatu substantzia kutsagarrien neurketa jarraituko sistemetan lorturiko datuak?

Bai

- Zergatik ez dira datu horiek argitaratzen Nafarroako Gobernuaren Ingurumen Departamentuaren web orrian?

Aipatu web orriak, herritarrei informazioa emateko legezko beharra betetze aldera, airearen kalitateari buruzko informazioa ematen du, baina ez foku zehatzen isuriei buruzkoa.

- Aurkezten ari al dira ingurumen zaintzari buruz ingurumen eraginaren adierazpenak exijitzen dituen txostenak? Noiz aurkeztu dira?

Txosten horiek urtero aurkezten dira; 2005eko txostenaren kopia erantsi dugu.

- Neurketa horiei buruzko datu jarraituak biltzen al dira hileko eta urteko txostenetan? Ingurumen eraginaren adierazpeneko 3.3.3. idatz-zatian –isuriak ebaluatzeko irizpideak ematen ditu– ezarritakoa betetzen al dute?

Bai, ingurumen zaintzari buruzko txostenean biltzen dira.

- Desbideratzeren bat izan al da? Hala bada, zer neurri zuzentzaile hartu da?

Ez da desbideratzerik izan

- Berrikusi al dira isurien mugak behin konbustio instalazio handien isuriei buruzko martxoaren 12ko 430/2004 Errege Dekretuak indarra hartu zuenetik?

Isurien mugak ezarri ziren onestekoa zen zuzentarauaren irizpideak kontuan izanik –martxoaren 12ko 430/2004 Errege Dekretuak ekarri zituen irizpideok Espainiako ordenamendura–. Hala ere, 2005an emandako ingurumen baimen integratuan isurien muga horiek murriztu dira, aipatu dekretuan, 6/2002 Foru Dekretuan eta Kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuaren gaineko 16/2002 Legean ezarritakoari jarraikiz.

- Zein potentzian funtzionatu du zentralak lanean hasi zenetik?

Ingurumen zaintzari buruzko txosteneko isuriei buruzko II. eranskinean azaltzen dira.

- Gasolioa nahiz gasaz bestelako erregairen bat erabili al da osagarri gisa?

Ez dago aukerarik gasolioa erabiltzeko.

- Isuriei buruzko zein ondorio aurkeztu dira?

Ezarritako isurien mugak betetzen direla.

10.2.2 Gai kutsatzaileak atmosferan izan duten immisioaren balioen zaintza.- Adierazpeneko 3.6 baldintzan xedatutakoaren arabera eginen da.

- Zein dira, zenbat dira eta non daude kutsadura atmosferikoa zaintzeko sarea osatzen duten neurketa-estazioak, dagoeneko existitzen diren 2 zentraletarako? Biak batera ala bereiz aztertu dira? Existitzen al da azterlan hori?

Lau neurketa-estazio daude, ondoko lekuetan: Arguedasen, Funesen, Tuteran eta Alfaron (Errioxa). Bi zentraletarako batera egindako azterlana bere garaian aurkeztu zen, eta Ingurumen zuzendari nagusiak emandako ebazpen baten bidez onetsi zen.

- Baiezkoan, zein datu ematen ditu azterlanak? Betetzen ari al dira ingurumen eraginaren azterlanean aurreikusi eta ingurumen eraginaren adierazpenean jasotako balioak?

Bai

- Betetzen ari al dira 1073/2002 Errege Dekretuek ezarritako balioak, sufre dioxidoaren, nitrogeno oxidoen eta nitrogeno dioxidoaren kasuetan, besteak beste, eta 1796/2003 Errege Dekretuak ezarritakoak airean dagoen ozonoaren kasuan? Desbideratzerik badago, zein neurri zuzentzaile jarri dira abian?

1073/2002 Errege Dekretuek sufre dioxidoaren, nitrogeno oxidoen eta nitrogeno dioxidoaren kasuetan ezarritako airearen kalitatearen balioak tarte handiz betetzen ari dira.

Airean dagoen ozonoari buruzko 1976/2003 Errege Dekretuak balio objektibo batzuk ezarri ditu; giza osasuna babesteko muga objektiboaren kasuan 2010-2012 hirurtekoan lortu beharko da; landaredia babesteko muga objektiboaren kasuan, aldiz, 2010-2014 bosturtekoan.

Informazio-betebeharra betetze aldera, urtero txosten orokor bat egiten da; hona hemen txostena transkribatuta:

A.- Giza osasuna babesteko muga objektiboa: egun bateko zortzi ordutan, batez beste, 120 $\mu\text{g}/\text{m}^3$ gehienez ere; muga hori, hiru urteko epean,

ezin izanen da urte zibil bakoitzeko 25 egun baino gehiagotan gainditu, batez beste.

2010-2012 hirurtekoan lortu behar den giza osasuna babesteko muga objektiboari dagokionez, Nafarroako lau eskualdetatik hiruretan lortu da: Iruñerrian, Mendialdean, eta Erdialdean.

B.- Landarea babesteko muga objektiboa: AOT40 deitutako parametro bat zehazten da, ($\mu\text{g}/\text{m}^3$)h-etan emana, epe zehatz batean ematen diren 80 $\mu\text{g}/\text{m}^3$ baino handiagoko orduko kontzentrazioen arteko diferentzien batuketa adierazten duena; horretarako, 08:00etatik 20:00etara bitartean (Erdialdeko Europako ordua) orduko neurtzen diren mugak baino ez dira erabiltzen.

Landaredia babesteko muga objektiboak, AOT40-rako, bost urteko epean, batez beste 18.000 ($\mu\text{g}/\text{m}^3$)h ezartzen du; eta hori, maiatzetik ekainera bitarteko orduko dauden mugak oinarri hartuz kalkulatuta.

2010-2014 bosturtekoan lortu behar den landaredia babesteko muga objektiboari dagokionez, Nafarroako lau eskualdetatik hiruretan lortu da: Iruñerrian, Mendialdean, eta Erdialdean.

EPE LUZEKO HELBURUAK

Epe luzeko helburuetan, 2020. urtea helmuga hartuta, egun bateko zortzi ordutan, batez beste, giza osasuna babesteko muga 120 $\mu\text{g}/\text{m}^3$ eta landaredia babesteko muga 6.000 ($\mu\text{g}/\text{m}^3$)h-ko AOT40 ezartzen dira. Giza osasuna babesteko muga Mendialdean lortu da, eta landaredia babesteko muga Mendialdean, Erdialdean eta neurri batean Iruñerrian.

INFORMAZIO ETA ALERTA MUGAK

Aipatu errege dekretuak, II. eranskinean, herri-tarrak informatzeko eta alertatzeko mugak ezartzen ditu; informatzeko mugaren orduko batezbestekoa 180 $\mu\text{g}/\text{m}^3$ da eta alertatzeko mugarena 240 $\mu\text{g}/\text{m}^3$.

2005ean ez da neurketa-estazioetan alerta maila gainditu; informazio maila, aldiz, zenbait neurketa-estaziotan behin baino gehiagotan gainditu da. Ondoko taulan adierazten dira datu horiek:

HERRITARAK INFORMATZEKO MAILEN GAINDITZEAK

Neurketa-estazioa	Hila	Eguna	Gehienezko orduko kontzentrazioa	Hasi zen ordua	Kontzentrazioak iraun zuen ordu kopurua	NO ₂ (µg/m ³) orduko kontzentrazioa, batez beste
Arguedas	Uztaila	14	190	13	3	3,43
Tutera	Uztaila	14	200	13	4	16,50

Informatzeko maila gainditu den kasu guztien berri Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuaren airearen kalitateko web orriaren bidez eman da, eta, halaber, maila gainditze horrek izan ditzakeen ondorioen berri, batez ere arrisku handiko herritar-taldeengan izan ditzakeen ondorioen berri, eman da; horretaz gain, kutsaduraren ondorioak murrizteko edo kutsaduraren eraginpean ahalik eta gutxien egoteko hartu beharreko babes neurrien berri ematen da.

MAILA GAINDITZEEN EBALUAZIOA.

Informatzeko mugaren gainditzea eman den eskualdeetan, epe laburrean, ez dugu ondorio aipagarrien berririk izan.

OZONOAREN SUBSTANTZIA AITZINDARIAK

Ozonoa sor dezaketen substantzia aitzindariatik, ozonoa neurtzeko estazioetan, nitrogeno dioxidoaren (NO₂) kontzentrazioa ere neurtzen da. Aurreko taulan, nitrogeno dioxidoaren orduko kontzentrazioa azaldu da, batez beste, informatzeko muga gainditu den aldiatarako. Nafarroan iritsi diren mugak Airearen kalitatearen ebaluazioari eta kudeaketari buruzko urriaren 18ko 1073/2002 Errege Dekretuak ezarri dituen mugetatik oso azpitik gelditu dira.

Erriberan ematen diren ozono mailen eta ozonoaren beste substantzia aitzindari batzuen kontzentrazio mailen arteko lotura baloratzeko asmoz, 2004an, honako azterlanak egin dira:

- Ozono troposferikoaren mailak, Nafarroako Erriberan.
- Konposatu organiko lurrunkorren mailak, Nafarroako Erriberan.

Bi azterlanak, Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuaren airearen kalitateko web orrian jarri dira.

EKINTZA PLANAK

Gaur egun, sufre dioxidoaren (SO₂), nitrogeno dioxidoaren (NO_x), konposatu organiko hegazkorren eta amoniakoren (NH₃) isuriak pixkanaka murrizteko programa nazionala indarrean dago; programa hori uztailaren 25eko Ministro Kontseiluren Ebazpenaren bidez onetsi zen. Programaren helburuetako bat da ozonoa sortzen duten subs-

tantzia aitzindarien isuriak murriztea, eta helburu horrek, epe ertain eta luzean, aipatu kutsatzailearen mailak murriztea ekarri beharko luke.

1976/2003 Errege Dekretuko 3.3 eta 4.2 artikuluetan ezarritako jarraikiz, 2010. urteko helburua betetzeko, Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak, beharrezkoa balitz, aipatu programa nazionalaz gain, beste plan eta programa batzuk gauzatu lituzke aipatu eskualdeetan, epe luzean, helburuak eta muga objektiboak lortzen direla bermatzeko.

- Neurketa estazioak egokiak al dira, kokatuta dauden lekuarengatik, errege dekretu horietan ezarritakoari begira, landarearen babes balioak neurtzeko?

Neurketa-estazioen kopurua eta kokalekua sustatzaileek egindako azterlan zientifiko bat egin ondoren zehaztu ziren; azterlan hori, estazioen helburuei egokitutako eredu matematiko bat erabiltzean lortutako emaitzetan oinarritu zen, eta emaitzak, airearen kalitatea zaintzeko egokitzat hartu ziren.

- Immisio-kutsadura dela-eta, zein ondorio aurkeztu dira?

Gaur egungo airearen kalitatearen indizeak betetzen ari direla.

10.2.3 Eragin akustikoaren zaintza.

- Ba al dago soinuaren immisio maila zaintzeko programarik?

Bai. Programaren arabera, soinua neurtzeko azterketak bi urtetan behin egin behar dira.

- Zein eremu hartzen du?
- Egin al da immisio mailen aldizkako neurketa-rik? Zein maiztasunarekin? Udaleko zein lekutan?
- Betetzen al dira ingurumen eraginaren azterlanean eta ingurumen eraginaren adierazpenean ezarritako balioak? Zein lege aplikatzen dira?
- Desbideratzeen kasuan, zein neurri zuzentzaile jarri dira abian?
- Zentral bakoitzari buruzko azterlana da edo baterako azterlana da, hau da, kutsadura akustiko-

ko beste iturriekin batera eginikoa? Zein dira iturri horiek?

- Kutsadura akustikoari buruzko zein ondorio aurkeztu dira?

2004ko azterlanaren kopia erantsi dugu; bertan azaltzen dira aztertutako eremua eta lortutako emaitzak.

135/1989 Foru Dekretua eta ingurumen eraginarekin adierazpenaren aholkuak aplikatu dira.

Jaiegunetan, hala isurietan nola immisioan, oro har, ezarritako mugak betetzen dira, eguneko ordutegiaren 12. puntuan eta gaueko ordutegiaren 7. eta 8. puntuetan izan ezik.

Lanegunetan betetze-maila txikiagoa da; izan ere, egun horietan, beste industria-jarduera batzuk eta trafikoa ere tartean daude.

Geroztik, enpresak soinu emisioari buruzko neurri zuzentzaile batzuk hartu zituzten; neurri horiek emaitza onak izan zituzten, eta hori, aurtengo txostenean islatuko da.

Azterlanean ezin dira baztertu beste iturrietatik sortutako zaratak; hori dela eta, zentrala funtzionatzen ari zen jaiegun batean azterlan bat egin zen, jaiegunetan itxita dauden beste jarduerak batzuen zarata saihesteko asmoz.

Hurrengo txostenaren ondorioz, beharrezkoa bada, 135/1989 Foru Dekretuan eta ingurumen eraginaren adierazpenean ezarritako isuri eta immisio mailak betetzeko beharrezkoak diren neurriak hartuko dira.

10.2.4 Uren kalitatea zaintzea.

- Ebro ibaira eginiko isurien azterlanik egiten ari al da? Zein maiztasunarekin?

Bai, Ingurumena Zaintzeko Planean ezarritako maiztasunarekin.

- Betetzen al dira isuriak baimentzeko ezarritako balioak?

Isuriak baimentzeko ezarritako muga-balioak betetzen dira.

- Desbideratzeen kasuan, zein neurri zuzentzaile jarri dira abian?

Ez da desbideratzerik izan.

- Uren kalitateari buruzko zein ondorio aurkeztu dira?

Hartutako laginetan, tenperatura, gehienez, 0,3°C igo da.

10.2.5 Hozte sistemaren dorrearen eraginak zaintzea.

- Inguruko gatz lagatzei dagokienez, laginik hartu al da? Zer distantziako erradioan?

10 neurgailu pasibo jarri dira; laginak, ondoko puntuetan hartu dira: hozte sistemaren dorretik 100 eta 200 metroko erradioan dauden zortzi puntutan eta haize nagusiaren norabidean 200 eta 300 metroko erradioan dauden lau puntutan.

- Hilabeteko g/m²-ko zein balio neurtu dira?

Erantsi dugun azterlanean ikus daitezke emaitzak.

- Landareen gaineko eraginak aztertzen ari al dira? Zein ondorio atera dira?

Gatz lagatzei buruz lortutako emaitzak hileko 0,720g CLNA/m² tasaren azpitik daude; ingurumen erreferentzia-maila horren azpitik ez da landarearen gaineko eraginik espero.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko ekainaren 13an

Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxeibizitza kontseilaria: Jose Andrés Burguete Torres

Galdera, Iruñeko autobus geltokiaren gaineko hitzarmenari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Amanda Acedo Suberbiola andreak Iruñeko autobus geltokiaren gaineko hitzarmenari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu dut. Galdera 2006ko maiatzaren 29ko 51. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko ekainaren 20an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Amanda Acedo Suberbiola andreak galdera egin du Iruñeko egungo autobus geltokian hobekuntza neurriak ezartzeko sinatutako hitzarmenari buruz. Hona hemen Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna.

Galdera

Etorkizuneko autobus geltokiko obrak exekuzio fasean badaude ere, departamentuaren hitzarmen bat badago diru-kopuru handiak ematen dituen egungo geltokian hobekuntza neurriak ezartzeko; esate baterako, informazio gune informatizatuak eta beste. Ez denez halako konpromisorik bete ez aurretik, ez joan den urtean, honakoa jakin nahi dugu:

1. Zergatik ez dira bete hitzarmenean ezarritako konpromisoak?

2. Nori ordaindu zaizkio ezarritako kopuruak eta zein prestazioren truke?

Erantzuna

1. Nafarroako Gobernuak eta Nafarroako Garraioko Enpresaburuen Elkarteak (ANET) sinatutako hitzarmena abian jarriko da aurtengo ekainean; hitzarmenaren helburua zen hiriarteko garraio publikoa modernizatzeko proiektu teknologiko bat garatzea, eskaintako zerbitzu eta ibilbideen komertzializazio eta informazio orokorreko sistema bat ezartzea hain zuzen ere.

Egia da atzerapena izan dela informazio sistema abian jartzean, baina hori izan da emakida izan duten enpresek beren informazio sistemen eta plataforma teknologiko berriaren arteko eraginkortasuna lortzeko topatu dituzten zailtasunengatik.

2. Aipatu hitzarmenaren bosgarren klausulan ezarritakoari jarraikiz, ANETi baimendutako zenbatekoak ordaindu zaizkio, hiriarteko garraio zerbitzuak komertzializatzeko eta horiei buruz informatzeko plataforma teknologikoa ezartzeko lanak garatu ahala.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko ekainaren 13an

Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria:
Álvaro Miranda Simavilla

Galdera, mahastien eskubideen prezioari eta mahatsaren ekoizpenaren kontrolari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak mahastien eskubideen prezioari eta mahatsaren ekoizpenaren kontrolari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko ekainaren 5eko 54. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko ekainaren 22an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak egindako galdera dela eta, hona hemen Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariaren erantzuna:

1. Ba al du Nafarroako Gobernuak mahastien eskubideen prezioa erregu bakoitzeko 300 eurora igotzeko asmoa, nekazariak saltzeko aukera benetan azter dezaten?

Nafarroako Gobernuak, nekazariak kalitate oneko ardoak ekoizteko balio ez duten mahastiak utz ditzaten daraman politikarekin jarraitzeko asmoa du.

Gobernuaren ustez, gaur egun, Nafarroak ardoa ekoizteko duen ahalmena nabarmen murriztuko duten neurriak hartzea ez da komeni-

garria, eta hori argi utzi behar da; beraz, epe laburrean, mahastien bereizi gabeko erauzketa diru publikoarekin bultzatzeko asmorik ez dago. Horri buruzko erabakiak hartzeko, Europako Ekonomia Erkidetza prestatzen ari den ardoaren arloko merkatuaren antolamendu komun berria onetsi arte itxaron beharko dugu; izan ere, antolamendu berri horrek ildo berriak ezarriko ditu.

Kalitate oneko ardoa egiteko balio ez dutela eta kendu dituzten mahastien eskubideengatik ordaindu beharreko prezioari dagokionez, Nafarroako Gobernuak datozen kanpainetan eskubideen merkatuak izanen duen bilakaeraren arabera du prezio hori ezartzeko asmoa.

2.- Zer ari da egiten Nafarroako Gobernuak mahatsaren produkzioa kontrolatzeko, hektareako 7.500 kilokoa izan dadin, jatorrizko deituraren kontseilu arau-emaileak erabaki zuen bezala?

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak, jatorrizko deiturek proposatuta, baimendutako mahats-barietateen errendimendua onesten ahal du, baina errendimendu horren landako kontrola, gainbegiraleen bidez, kasuko kontseilu arau-emailearen eskumena da.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 190. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko ekainaren 20an

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilaria: José Javier Echarte Echarte

Galdera, Iruñeko zeruan aireko armadaren hegazkin batek egindako erakustaldiari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak Iruñeko zeruan aireko armadaren hegazkin batek egindako erakustaldiari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko maiatzaren 29ko 51. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko ekainaren 28an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Eusko Alkartasuna Parlamentuko Taldeari atxikitako Maiorga Ramirez Erro jaunak galdera egin du Espainiako indar armatuen F-18 hegazkinak, joan den maiatzaren 13an, ustez Iruña gainean egindako hegaldiarekin zerikusia duten zenbait gairi buruz. Hona hemen Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna.

Lehena. Ba al zuen Nafarroako Gobernuak erakustaldi horren berririk?

Ez

Bigarrena. Behar diren baimenak ba al zituen?

Galdegileak jakin behar duenez, 1978ko Espainiko Konstituzioan (149.1 4. eta 149.1.20. artikuluetan) ezarrita dagoenaren arabera, estatuak du eskumen eskusiboa bai defentsa eta arma-

da arloan, bai aire-espazioa, aireko zirkulazioa eta aireko garraioa kontrolatzeko arloan.

Hirugarrena. Polizia indarren arteko koordinaziorik izan al zen?

Zoritxarrez, Ramirez jaunari esan behar diot ez dakidala koordinazio horrek, kasu honetan, zer helburu izan zezakeen; hala ere, Ramirez jauna lasaitze aldera, polizia indarren arteko koordinazioa badagoela baieztatu nahi diot; are gehiago, legegintzaldi honetan, indar horien arteko koordinazio-maila hobetzea lehentasunezko helburua izan da Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuarentzat. Helburu hori betetzeko prestatu, aurkeztu eta onartu berri da Nafarroako Parlamentuan Nafarroako segurtasun publikoari buruzko Foru Legea.

Laugarrena. Nolako balorazioa egiten du Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuak horrelako erakustaldiei buruz?

Nafarroako Gobernuak Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuak ez du horren inguruko baloraziorik egin eta ez du beharrezkoa ikusten horrelakorik egitea.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko ekainaren 20an

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria: Javier Caballero Martínez



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA ORRIA

Izen-deiturak

Helbidea

Telefonoa *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu.

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urtebete 43,95 euro	
Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko 1,15 »	
Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko 1,30 »	